

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko maiatzaren 21a

IV. urtea • 156. zenbakia • DOAN BANATZEKO



**JOSEBA IRIONDO / KAZETARIA**  
*"Nahiko nuke Bushek azaroko hauteskundeetan jasatea gerraren ondorioak" /7*

**Goienka2a**  
 Euskal kantuz osatutako liburuxka egin du Jardunek

## 'GOIENKARIA'-REKIN: EZKONTZEN GAINEKO GEHIGARRIA BARRUALDEAN

### ASTEKO GAIA: GERRAKO PRESOEI DIRU-SARIAK

# Beranduegi edo inoiz ez

Haserre, nahigabetuta, minduta... daude Espainiako gerran Francoren preso izan ziren debagoien asko. Eusko Jaurlaritzak egunotan erabaki du 2002an gudari ohiei agindu zien diru-sarien gainean, eta eskaeren %70 atzera bota ditu, oso gutxik zeukaten dokumentu bat falta zela-

eta. Kontentsazioa lortu dutenek ere ia bi urte itxaron behar izan dute diru-sariak eskuratzeko; asko lehenago hil dira.

Kaltetuek antolakuntza falta eta "jaramonik ez egitea" aurpegiatzen diete agintariei, eta gudari eta presoek merezitako ordaina ematea eskatzen dute. /2-3

## Consumen baja igarri du MCCk irabazietan

Munduaren egoera ekonomikoak eragina izan du MCCren iazko emaitza ekonomikoetan. Hala ere, oro har, datu positiboak izan zituztela aditzera eman zuen MCCko Kontseilu Orokorreko presidente Jesus Cataniak. Emandako datuen arabera, salmentak %4,6 hazi ziren. Hori bai, azpimarratu zuen

Consumen baxerik izan ez balitz, hazkunde hori %13 izango zela.

2004ari begira, berriz, hazten segituko duTela aurreikusituz. Helburuetariko bat da 70.000 lanpostuen kopurua gaintzea eta atzerrian hazten segitzea, Txinan, Herbehereetan eta Mexikon, bereziki.



OIHANA ELORZA

## Aurrera egingo duela dio HZk

Eguaztenean egin zuen prentsaurreko aurkezpena Debagoieneko Herritarren Zerrendak, Bergaran. Beste behin, demokrazia falta ikusten dela esan du HZk, eta oztopo guztien ginetik aurrera egingo dutela esan zuten partaideek. Debagoieneko lau lagun daude Herritarren Zerrendan: Enara Minguez abokatua, Mila Larrañaga kooperatibako langilea, Ramon Loiti langilea —hirurak bergararrak— eta Manex Agirre —aramaioarra—. Ibarrean hainbat aurkezpen ekitaldi egin dituzte egunotan, eta ekitaldi horiekin jarraituko dute ondorengoetan ere. /5

**AUDI A6 BERRIA**  
 Potentzia  
 Indarra  
 Segurtasuna  
 Erosotasuna  
 Teknologia

**Udalaitz**  
 Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

### ELGETA

## Epaimahaiak hilketa eta lapurreta egotzi dizkio Mendikuteri

Arrate Elgoro Elgetako tabakodendakoa alebiosiaz eta krudelkeriaz hil zuela esan du zineko epaimahaiak. Hilketa gain, lapurreta delitua ere egotzi dio Aitor Mendikuteri. Fiskalak 24 urteko kartzela zigorra eskatu du eta akusazioak 27 urtekoa. Akusazio partikularraren eta herri-akusazioaren abokatuak pozik agertu dira. /4

### OÑATI

## Kalegoieneko etxebizitzaren kontua argitu nahi du Udalak

Kalegoieneko babes ofizialeko etxebizitzaren inguruan sortu diren esamesen inguruan, egoera argitu nahi izan du Udalak. Babestutako etxebizitzaren promozio publikoa eta pribatua bereiztu egin behar direla dio Udalak. Era berean, legearen barruan jokatu duela promotore pribatuak, baina kasuaren jarraipena egingo duela. /6

### ARRASATE

## Salaketa gehiago San Josepe harrobiaren kontra

Aralar, Zutik eta EB alderdiek eta Ekologistak Martxan taldeak San Josepe harrobiarekin gertatzen ari dena salatzen dute. Harrobiaren kasuan, salatu dute Udalaren erabakiari kasu egin barik oraindik jardunean dabilzala, industrialdea egiteko gunea egokitu barik dutela eta, oro har, ez dutela bete Udalarekin hitzartutakoa. /6

# Frankismoko presoak

- Jaurlaritzak atzera bota ditu eskaeren %70, edo berandu eman
- Ibarreko gudari ohiak minduta eta haserre daude Jaurlaritzarekin
- Agiri jakin bat eskatzen dute, ia inork lortu ezin izan ez duena

LEIRE KORTABARRIA

**E**spainiako gerran Francoren aurka borrokatu zutenak erregimen haren biktima izan ziren, eta orain salatzen dute erakundeek biktima izana. Garai hartan Francoren kartzeletan egon izanaren ordaina, azkenean, jasoko zuten itxaropena piztu zen debagoiendar askorengan orain dela bi urte; hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Gizarte

Gaien Sailak, Javier Madrazo buru zuela, aditzera eman zien guztiei "Estatuak emandako diru-ordainik altuenak" banatuko zizkiela. Hain zuzen, 7.200etik 9.600 euro bitarteko konpentsazioak. Bete beharreko baldintza bakarra zen Francoren agintean preso politiko izana. Amets hori amesgaizto moduan bukatu da debagoiendar gehienondako, hil honetan aditzera eman da eta Jaurlaritzak kasu bakoitzaren inguruan zer erabaki duen.

Debagoiendar asko ilusio handiz eskaerak betetzen hasi ziren. Baina, ibarreko heterano baten alabak dioen bezala, "adar-jotzea" egin dieten sentsazioa jaso dute. Izan ere, jasotako 8.680 eskakizunetatik, 2.529 bakarrik hartu ditu ontzat Jaurlaritzak. Eta diru-sariak onartu dizkietenek urte eta erdi itxaron behar izan dute dirua jasotzeko. Askok iritsi ere ez dira egin.

Antzinako gudari hauetariko gehienok bertan behera utzi dute borroka hau. Gogaituta eta nekaituta daude. Errekurtsoetarako epea zabaldu da, baina gehienek ez dute gai horretaz gehiago jakin nahi. Izenik eman nahi ez duen debagoiendar baten familiak honakoa dio: "Gure aita preso egon zeneko dokumentu guztiak eskatu genituen. Baina Zigor Erakundeek ez diote inori jaramonik ere egin. Orain, amorratuta eta minduta dago, eta nahi duena da gai hori ahaztu".

## ARRETA EMATEN DUTEN KASUAK

Mina eta haserre, bai, baina baita susmoa ere piztu dira debagoiendar askorengan. Batek baino gehiagok itxura txarra hartzen dio ekimen honi, eta gogoratzen dute hauteskunde atarian eman zela egitasmo horren berri. Beste batzuek uste dute diru partidak aldeaz aurretik ez zituztela ondo kalkulatu.

Egia esan, gutxienez, atentzioa ematen duten hainbat kasu gertatu dira. Jesus Kortabarría mondragoetarraren kasua oso esanguratsua da: Langile Batailoian behartuta eman zituen 14 hilabeteen gaineko agiria bidali zuen. Gizarte Gaietako Sailaren erantzuna: "Zerbitzu militarrean emandako denbora ez da hartzen askatasun-gabetze bezala". Beste adibide bat: Bergarako EAJK tramitatu ditu kasu asko,

eta Miren Agirre arduradunak dioenez, "sarritan, preso hartzen zituzten, baina epaitzen ez zituztenez, jende guztiak jakin arren zergatik zeuden preso, ez dago hori frogatzen duen agiririk. Horiei ez diete diru-ordainik eman, eta errekurtsioa ipini dugu, Jaurlaritzari eskatzen horiek kontuan har ditzan".

Gauzek ez dute itxura onik errekurtsioa ipini dutenendako, ordea. Gizarte Gaien Sailak argi eta garbi azaldu dio GOIENKARIARI: "Delitua frogatu ezin dutenek ez dute diru-ordainik jasoko".

## AURREIKUSPEN FALTA

Zoritzarreko ironiaren ironian, Debagoieneko gudariak memoria harrigarria dute, eta eskatzen zizkieten beste dokumentu guztiak fin-fin bete dituzte... bat izan ezik: Langileen Batailoian, kontzentrazio-esparruren batean zein presondegi batean preso politiko gisan egon zirela frogatzen duen agiria.

Hortik dator beste kexu bat: erakundeek aurreikuspen falta ikaragarria. "Madrazoren sailak oso-oso gaizki antolatu du hau. Euren bazekiten inor gutxi izango zituela beharrezko agiriak", dio Arrasateko EAK. Horrez gain, epe laburregia eman zuten agiriak lortzeko. Gehienek Guadalajarako Agiritegi Militarrea eskaera egin behar izan zuten. Debagoiendar asko Ondarretan, Kantabrian, Burgosen... egon ziren preso, baina horren dokumentaziorik ia ez dago, edo buruhauste handiekin bakarrik lor zitekeen. Bergarako EAJK dioenez, "historialariek onartu dute Guadalajarako agiritegian dokumentuak ez zeudela erraz aurkitzeko moduan".

Ametsak gutxi batzuek bakarrik izan du bukaera zoriontsurik. Izan ere, batzuek preso txartela jaso zuten. Baina gutxiengo baten kasua da.

Eskakizunon gainean erabakitzeak luze jo dio Madrazoren sailari; luzeegi, askorendako. Lagun asko hil egin dira erantzunaren zain zeudela, 2002ko azaro urruti hura ezkerro. Batzuk ez dira garaiz iritsi euren eskakizunaren zoriaren berri jasotzeko; beste asko, ordea, frankismoan gorriak pasatu ondoren, azken nahigabe hori jasota zenduko dira.



## geroari begira

### GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

#### ARRASATEko Campusa

##### Lehen zikloa

- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa
- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa: Telekomunikazio Sistemak berezitasuna
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa: Telematika berezitasuna

##### Bigarren zikloa

- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza
- Industri Ingeniaritza
- Informatikan Ingeniaritza
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza

#### GOIERRIko Campusa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa

#### LEA-ARTIBAko Campusa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa

### ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

#### OÑATIko Campusa

##### Lehen zikloa

- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa
- Zuzendaritza Idazkaritza

##### Ziklo luzea

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura:
  - Finantza Zuzendaritza
  - Merkataritza Zuzendaritza
  - Erakundeek Kudeaketa

#### ELGOIBARKo Campusa

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura

#### BIDASOko Campusa

##### Lehen zikloa

- Enpresa Zientzietan Diplomatura:
  - Enpresa Logistika eta Garraioa
  - Nazioarteko Merkataritza

##### Bigarren zikloa

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura (2006-07tik aurrera)

### HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

#### ESKORITZAKo Campusa

##### Lehen zikloa

- Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza berezitasuna
- Irakaslea, Hezkuntza Berezia berezitasuna
- Irakaslea, Heziketa Fisikoa berezitasuna
- Irakaslea, Haur Hezkuntza berezitasuna
- Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira berezitasuna
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza berezitasuna

##### Bigarren zikloa

- Psikopedagogian Lizentziatura (Eskoritzan eta Bilbon)
  - Hizkuntzen Psikopedagogia
  - Eskuhartze Psikopedagogikoa

##### Ziklo luzea

- Humanitateak Lizentziatura:
  - Informazio eta Komunikaziorako Giza Zientziak (Ikus-entzunezko Komunikazioa -2.ziklora sarrea-)
  - Enpresarako Giza Zientziak

Inskripzio epea zabalik  
ekainaren 18rarte

*Kexu handienetako bat da Eusko Jaurlaritzaren antolakuntza falta ikaragarria*

*Ia 9.000 eskaera jaso ditu Jaurlaritzak EAE osotik; horietatik, 2.500 soilik onartu dira*

# , bigarrenenez biktima

AGIRIRIK EZ

**Hiltzen zituztenak, aske utzita bezala agertu**

Preso egon zirenetatik asko fusilatu egiten zituzten, eta ibarrean ere hainbat kasu egon ziren. Garai hartako irregulartasunak asko izaten ziren. Lagun asko epaiketarik gabe kartzelarazten zituzten bezala, fusilatu asko behartzen zituzten, halako batean, askatasun agiria sinatzera; biharamu-nean, hil egiten zituzten. Hori dela-eta, asko desagertu moduan agertzen ziren.

**DOMEKAN ETA EKAINEAN Ibarrean, bi omenaldi ekintza izango dira laster**

Etzi, domeka, Herritarren Zerrenda taldeak lehengo eta oraingo gudariei omenaldia egingo die Elgetan, Asentzioko bidegurutzean. Ibarreko fusilatuen senide eta adiskideen batzordeak ekitaldia egingo du ekainaren 6an: meza izango dute Arrasaten eta lore eskaintza segidan. Foru Aldundiak atzo, eguena, omendu zituen frankismoak zigortu eta kanporatutako langileak.

**ZUZENKI EDO ZEHARKA Gatibu izana zeharka frogatzen duten agiriak**

Eusko Jaurlaritzak ezezkoa eman die preso egon zirela dokumentu ofizialik aurkeztu ez dutenei. Hala ere, egoera hori zeharka frogatzen duten agiriak onartu egin ditu; euren esanetan, "kasu askotan". Esaterako, txertoren bat hartu izanaren agiria kontzentrazio-esparruan lortu dutenei.

Ibarrean, oso gutxi izan dute egoera hori frogatzeko modua.

**BALDINTZAK**

**Kaltetuz gain, senide batzuek eska zezaketen**

Gizarte Gai Sailak 2002ko azaroan jarri zuen abian egitasmoa. 2003ko otsailera arte jasotako eskakizunak aztertu ditu. Kaltetuz gain, alargunak eta behin betiko ezintasun edo zurtasun pentsiodun seme-alabek zuten eskaerak egiteko eskubidea. Baiezkia jaso eta prozesuan hil direnen oinordekoek diru-ordain horiek jasoko dituzte. Hasi dira diru-sarrerak egiten.

**JESUS KORTABARRIA / PRESO EMAN ZITUEN URTEAK EZ DIZKIOTE AINTZAT HARTU**

*"Gure gobernuak abandonatu egin gaitu"*

**G**aztaroko urte onenak gerran preso galdu zituen Jesus Kortabarría mondragoetarrak, baina Eusko Jaurlaritzak ez du bere kasua aintzat hartu.

**Non egon zinen gerra denboran?**

37an, Kirikixo batailoian boluntario joan nintzen, 18 urterekin. Abuztuan, Kantabrian preso hartu gintuzten. Handik Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparrura eraman gintuzten, 76. Langileen Batailoian. Guadalajarako probintzian, kaminok eraikitzen gatibu-lanak egin genituen. 1938 urte hasieran, berriz, Extremadurako Casa Don Pedrorra bidali gintuzten; 39 urte hasieran, Madrilgo frontera, eta gerra urte horretan bukatu zen arren, irailera arte hantxe izan gintuzten, bazter guztiak garbitzen. Errenterian ere ibili nintzen errepide lanetan. 1940an aske utzi ninduten, baina berriro atxilotu ninduten. 1941etik aurrera, Lesakan, El Ferrolen, Almerian... eduki ninduten gatibu, 1944an etxera itzuli ahal izan



nuen arte. Onik, baina ez osasuntsu.

**Eta hori guztia pasatuta, ez dizute ordainsaririk eman.**

Ez. Eusko Jaurlaritzaren eta Madrazoren sailaren portaera ez zait bat ere gustatu. Herrian, guztiok dakigu zein egon zen Francoren preso. Hor komisio

bat sortu behar izan zuten herri bakoitzean, udalean, eta berehala antzemango genuen preso egon ez zen bateren bat etorriko balitz.

**Zein argumentu eman dizute, bada?**

Ia inork ez du preso egon zela frogatzeko agiririk. Guztia

*"Langileen Batailoian preso eman nuen garaia zerbitzu militar bezala hartu dute"*

galdu egin da. Memoria historikoa besterik ez nuen nik, eta hori bidali nien, eskatzen zuten dokumentu guztiakin. Defentsa Ministerioak bidalitako askatasungabetze agiri bakarra neukan, Langileen Batailoian izan ninduten garaikoa (1941-43), eta esan didate hori zerbitzu militar bezala hartzen dutela, eta ez duela balio.

**Errekurtsorik aurkeztu duzu?**

Bai, baina inongo itxaropenik gabe. Jaurlaritzak bazekien guk ez genuela hemendik inongo pozik hartuko, atsekabea besterik ez. Ni 18 urterekin joan nintzen herria defenditzera, eta gure gobernuak jaramonik ere ez digu egin. Abandonatu egin gaitu.

**ANTONIO ALTZELAI / BI URTETIK GORA FRANCOREN PRESO; BERE KASUA ONDO BUKATU DA**

*"Guztiok dakite gizon horiek egia diotela"*

**A**ntonio Altzelai oñatiarra 92 urte ditu, eta ahoretatik bi, hiru hilabete eta 20 egun preso eman zituen, Espainiako gerraren ondoren. Bere kasua ondo bukatu da: diru-ordaina eman diote berari.

**Luze itxaron arazi ondoren, diru-saria eman dizute.**


Bai. Hil honetan jaso dut Eusko Jaurlaritzaren gutuna.

**Zelan lortu zenuen froga-agiria?**

Ni beste tramite bat egiten ari nintzen. Salamancatik bidali zidaten dokumentu hori, nik orduan eskatzen nuena ezeztatzeke. Gero jaso nuen Eusko Jaurlaritzaren diru-sarien berri, eta orduan agiri hori aurkeztu ahal izan nuen nire kasua justifikatzeko. Agiriak zioen 1937ko urriaren 21ean atxilotu nindutela, eta 1940ko otsailaren 10ean aske utzi.

**Zuk ere, zeureak eta bi pasa zenituen Espainiako gerran.**

Zazpi presondegitan egon nintzen: Santoñan, Iruñean, Miranda de Ebron, Jadraquen, berririo



Iruñean, eta Ondarretan. Azkenean, nire kasua artxibatu egin zuten. 37an erori nintzen; ordu-ra arte, gerra hasi zenetik hainbat frontetan borrokatu nuen: Oñatin, Bergaran, Bizkaian, Asturiasen, Kantabrian... Balaz zauritu ninduten eta hilabete eta erdi hilzorian egon nintzen.

**Zein delitu egotzi zizuten?**

Oñatiko batek salatu ninduen, besteei txar egiten *aditu* zen batek. Zer egotzi zidaten? Jendilaje izatea, eskuineko jendeari txar egitea, ezkerreko egunkariak irakurtzea...

**Jakingo duzu zure kasua gutxienetakoa dela, gehienei**


*"Niri eman didaten bezala, lagunoi ere diru-sariak eman beharko lizkieke Jaurlaritzak"*

**ez diete-eta diru-saririk eman. Ze iritzi daukazu?**

Nik ezagutzen ditut horrela dauden hainbat, bai. Jendea oso haserre dago, eta batzuek errekurtsioa ipini dute. Esan diete euren agiriak ez dutela balio, datak ez direla agertzen... Nik gurako nuke lagun guztioi ordainok ematea. Guztiok dakite gizon horiek egia diotela. Baina agiri jakin bat eskatzen dute, eta gehienak galdu egin dira. Urte asko dira eta...

**Zer egin beharko litzateke, zure ustez?**

Ona izango litzateke leku-koen testigantza onartzea, baina gehienak hilda daude. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak ere zer edo zer egin beharko luke.



ENEKO AZKARATE

Bergarako Agorrosingo kirol eremua berritzeko 2.100.000 euro (ia 350 milioi pezeta) emango ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

## 10 milioi euro eta erdi inbertituko ditu Aldundiak Debagoienez

*Bergaran, Elgetan eta Arrasaten egingo ditu inbertsio handienak*

OIHANA ELORZA

**Gipuzkoako gainontzeko herrietan bezala, Debagoienez ere kirol ekipamenduan, kulturen eta errepide sarean egingo du Diputazioak inbertsio handiena. Guztira, 10.430.500 euro inbertituko ditu Aldundiak Debagoienez.**

Bergaran, Elgetan eta Arrasaten egingo ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak Debagoienez inbertsio handienak. 2004an onartu dituen inbertsioak dira, eta hemendik eta 2007ra bitartean egingo diren lanetan gastatuko ditu diru partida hauek. Guztira 140 milioi euro inbertituko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoan, horietatik ia 10 milioi eta erdi gure eskualdean.

Debagoienez, Bergarako Agorrosingo kiroldegiko eraikinean egingo du inbertsio handiena Diputazioak, Bergarako igerilekuak egiteko, hain zuzen

ere. Bergaran bertan, seminarioan kokatuko duten auditorioa egiteko ere diru kopuru handia inbertituko du Aldundiak. Berez, Bergaran egingo du eskualdeko inbertsiorik handiena.

Elgetan, aldiz, bide azpiegiturak egiteko erabiliko du dirua. Elgetako Udalak esan digunez, oraindik ez diote ziurtatu zein alde edo zein errepide egiteko erabiliko den. Hala ere, Aldundiaren txostenak jasotzen du dirua Elgetako saihebidetaren lehen fasea egiteko erabiliko dela. Udalak egina zuen eskaera. Saihebidetaren lehen fasea San Roke ostetik, kanposantu ingurutik, Kanpanzar bidearekin lotura egin arteko tartea izango da, enpresak dauden gunean barrena. Bestalde, Bergaratik Elgetara bidean dauden Ubera eta Izarreko bihurtzeak konpontzeko dirua ere jarri du Diputazioak.

Arrasaten, Musakolako kirolgunean atletismoko pista bat eta

errugbian eta futboleko jokatzeko zelaiak egiteko emango du dirua. Errepide sarean, berriz, Garagartzatik Arrasatera doan errepidea eta herriko hegoaldeko sarrera konpontzeko inbertituko du.

Oñatin ere bide azpiegituratan egingo ditu inbertsioak, baita Antzuolan ere. Leintz Gatzagan, esaterako, Arlaban mendateko errepide sare konpontzeko emango du dirua, eta Aretxabaletan, berriz, herrian eta inguruan espaloak jartzeko.

Gipuzkoa osoan inbertituko dituen hiru eurotatik bi, kultur eta kirol ekipamenduetarako erabiliko ditu, zaharrendako egoitzetan plaza gehiago sortzeko, gizarte baterakuntzarako eta errepideen bigarren mailako sarea hobetzeko. Debagoienez ere horrelaxe izango da. Izan ere, Bergarako auditorioa egiteko, Bergara eta Arrasateko kirolgunek egiteko eta errepideak hobetzeko erabiliko ditu.

## Hilketa eta lapurreta egotzi dizkio Mendikuteri epaimahaiak

*Eguaztenez emango du epaileak sententzia*

USOA AGIRRE

**Arrate Elkoro alebosiaz eta krudelkeriaz hil zuela uste du zinpeko epaimahaiak. Hilketaz gain, lapurreta delitua ere egotzi dio Aitor Mendikuteri. Fiskalak 24 urteko kartzela zigorra eskatu du, eta akusazioak, berriz, 27 urtekoa.**

Hilketa, asasinatzea, egotzi dio zinpeko epaimahaiak Aitor Mendikuteri. Hilketa hori, gainera, alebosiaz eta krudelkeriaz egin zuela esan du. Hilketaz gain, lapurreta ere egotzi dio. Aringarri bat ezarri dio zinpeko epaimahaiak epaiari: Arrate Elkoroaren erasoaren unean, Mendikuteri askatasuna partzialki asaldatuta zegoela, eta anomalia psikiko arina duela. Aho batez hartu du erabakia zinpeko epaimahaiak. Akusazio partikularren eta herri-akusazioaren abokatuak pozik agertu dira berediktuekin.

Epai hori ikusirik, fiskalak 20 urteko kartzela zigorra eskatu du hilketaz gain eta lau urteko kartzela zigorra lapurretatik; 24 urteko kartzela zigorra, guztira. Akusazio partikularrak eta herri-akusazioak 22 urte eta

sei hilabeteko kartzela zigorra eskatu dute hilketaz gain eta lau urte eta sei hilabete lapurretatik; 27 urteko kartzela zigorra, guztira. Epaileak datorren eguaztenez emango du zenbat urteko kartzela zigorra izango duen Aitor Mendikutek.

**EPAIKETA**

Arrate Elkoro Elgetako tabako saltzailearen hilketaren epaileta Donostiako epaitegian egin da, eta zazpi egun iraun du. Mendikuteri aitak, Elkoroaren etxe-koek, ikerketa burutu zuten ertzainek, auzitegiko medikuak, Elgetako udaletzeko zinegotzi ohi batek eta beste hainbat lekukok deklaratu dute zazpi eguntan, baita Aitor Mendikutek ere. Mendikutek aitortu egin zuen erruduna dela, giza hilketaz, eta zigorra beteko duela esan zuen.

*Mendikutek erruduna dela aitortu zuen, baina giza hilketaz, ez asasinatzeaz gain*

### DEBAGOIENEAN LABUR

#### Xabier Oregi 'Panti'-ri omenaldia egingo diote zapatu iluntzean Bergarako plazan

Begarako San Martin plazan egingo diote omenaldia Xabier Oregi 'Panti'-ri bihar, zapatua. 20:00etan hasiko da omenaldiko ekitaldia, eta gero, herri afaria egingo dute plazan bertan, eguraldiak laguntzen badu, behintzat. Domekan, presoan gaineko nazioarteko foroa egingo dute Donostian, Miramar jauregian. Mundu osoko ordezkariak hartuko dute parte bertan, eta 'Panti'-ren omenaldiko ekitaldietan parte hartzeko gonbidatu dituzte. Xabier Oregi 'Panti' bergararrak 22 urte egin ditu herritik kanpo, azken 17 urteak espetxeetan. Joan zen zapatuan utzi zuten aske, Murtziako kartzelatik, eta harrera egin zioten herrian.

#### Abelazleen Elkarteak batzar orokorra egingo du domekan Aretxabaleta

Debagoienezko abere hazleen elkarteak, Degabel elkarteak, urteko batzar orokorra egingo du domekan, Aretxabaletan. Bertan, joan den urteko akta irakurriko dute, eta bazkideei bidezkoa iruditzen bazaie, onartu egingo dute. 2003ko gorabehera ekonomikoak ere aztertuko dituzte, besteak beste. Honez gain, 2004ko aurreikuspena aztertuko dute, eta elkartearen ordezkari berriak aurkeztuko dituzte. Batzar orokorraren amaieran, hiru sari banatuko dituzte bazkideen artean. Egun 500 bazkide ditu Degabelek.

#### Eraikuntzako langileek greban jarraituko dute patronalarekin adostasuna lortu arte

Atzo, eguena, hamar egun bete zituzten greban eraikuntzako langileek, eta egoera ez da batere aldatu. Sindikatuko ordezkariak esan dutenez, lehenengo egunean bezala daude, edo are okerrago, langileak hamar egun doazelako lanik egin gabe, eta patronalak ez duelako inolako mugimendurik egin. Patronalaren jarrera ikusita, langileek greban jarraituko dutela aurreratu dute, eta pike informatiboak egiten jarraituko dutela datozen egunetan. Eguazten eguerdian Arrasaten egindako piketearen hiru lagun atxilotu zituen Ertzaintzak. Gaur, manifestazioa egin dute Donostian.

#### Ibarrean egingo dituzten inbertsioak

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Udalerrria	Ardatza	Inbertsioa	Zuzkidura (€)
<b>ANTZUOLA</b>	Bide azpiegiturak	Bide segurtasuna. GI-632 Antzuola Mendebaldeko sarrera	600.000
<b>ARETXABALETA</b>	Bide azpiegiturak	Bide segurtasuna. Aretxabaleta espaloak	120.000
<b>ELGETA</b>	Bide azpiegiturak	Laugunea hobetzea. GI-2632 Elgetako bihurtzeak	820.000
	Bide azpiegiturak	Eraikuntza berriak. Elgetako saihebidetaren (1. fasea)	1.500.000
<b>ARRASATE</b>	Kirol ekipamenduak	Musakolako kirolgunea	1.500.000
	Bide azpiegiturak	Bide segurtasuna. GI-2620 egokitzea 8.1.IC-ra	400.000
	Bide azpiegiturak	Bide segurtasuna. Arrasate Hegoaldeko sarrera berrantolatzea	300.000
<b>OÑATI</b>	Bide azpiegiturak	Bide segurtasuna. GI-2630 egokitzea 8.1.IC-ra (%65)	240.500
<b>LEINTZ-GATZAGA</b>	Bide azpiegiturak	Laugunea hobetzea. GI-627 Arlaban	600.000
<b>BERGARA</b>	Kultur ekipamenduak	Ekipamendu eszenikoak: Errege Mintegiko auditorioa	1.750.000
	Kirol ekipamenduak	Agorrosingo kiroldegia	2.100.000
	Gizarteratzea	Gureak Tailerrak	500.000
<b>DEBAGOIENA</b>	<b>GUZTIRA</b>		<b>10.430.500</b>

# Ilegalizatzeko arrazoik juridikorik ez dutela esan du eskualdeko Herritarren Zerrendak

*Oztopoak jarri arren, Europara bidean aurrera egingo duela argitu du Debagoieneko HZk*

OIHANA ELORZA

Eguaztenean egin zuen prentsaurreko aurkezpena Debagoieneko Herritarren Zerrendak, Bergaran. Beste behin, demokrazia falta ikusten dela esan du HZk eta oztopo guztien gainetik aurrera egingo dutela esan zuten partaideek.

Joan den eguaztenean egin zuen prentsaurreko aurkezpena eskualdeko Herritarren Zerrendak, Bergarako kultura etxean. Bertan, HZko Hegoaldeko hautagaien artean dauden hiru debagoiendarrek hitz egin zuten, Bergarakoak hirurak: Enara Minguez abokatua, Mila Larrañaga kooperatibako langilea eta Ramon Loiti langilea.

Herritarren Zerrendako hautagaiak hautesle elkarte horren alde egindako herritar guztiei eskerrak emanaz hasi zuten prentsaurrekoa. Debagoienean 2.380 sinadura bildu zituzten 10-12 egunean eta 50 mila inguru Euskal Herri osoan.

HZko hautagaiak esan zuten Espainiako gobernuak Euskal Herria "kutsatu" egiten duela. Madrilen alderdi politiko aldaketa egon den arren, berriro demokrazia falta nabaria dela gehitu zuten, eta PSOEren jarraera ikusita, "alderdi sozialistak ez duela egoera konpontzeko askorik lagunduko" adierazi zuten Mila Larrañagak. Gaineratu zuten egoera konpontzeko zeregin honetan euskal alderdiek ere erantzukizun handia dutela, "eta hitz egin ordez, egin" egin behar dutela adierazi zuten Larrañagak. Horrekin batera, Bergarako Proposamenarekin, Lizarra-Garazirekin eta Nazioarteko Eztatibidagunearekin "ados" daudela gaineratu zuten Mila Larrañagak. Ramon Loitik, bestalde, Euskal Herriari ez diotela bere antolaketa egiten uzten esan zuen: "Agin-duak beti datoz goitik behera", esan zuen. Honi, lan esparruan dauden injustiziak, euskararen zapalketa, multinazionalak jaten ari diren lursailak eta baserritarren egoera larria gehitu zizkion.

## HZ-REN LEGEZ KANPORATZEA

Herritarren Zerrenda ilegalizatzeko ematen dituzten arrazoiak ez direla juridikoak esan zuten. "Gainera, Eusko Jaurlaritzak ere ez ditu behar diren garantzia juridiko, politiko eta zibilak bermatzen", gaineratu zuten Mila Larrañagak, HZko hautagaiak.

Hautesle elkarte hori legez kanpo uzteko arrazoiak bat da HZ ilegalizatuta dagoen talde baten jarraipena dela. Hori argitzeko diote hautagaietako batzuk Herri Batasuneko zerrendetan aurkeztu zirela, tartean,



OIHANA ELORZA

Debagoieneko Herritarren Zerrendako partaideek Bergarako kultura etxean egin zuten prentsaurreko aurkezpena, eguaztenean.

*HZk dio  
PSOEek ez duela  
ezer egingo  
Euskal Herriko  
egoera konpontzeko*

*Ados dago Bergarako  
ekimenarekin,  
Lizarra-Garazirekin  
eta Nazioarteko  
Eztatibidagunearekin*

*Ilegalizatzeko  
arrazoien aurrean,  
juridikoki garbi  
dagoela esan du  
Ramon Loitik*

Ramon Loiti. Loitik argitu zuen bera garbi dagoela: "Juridikoki ez dut ezer", zehaztu zuen, eta bera aurkeztu zenean HB legez-tatuta zegoela gaineratu zuten.

Ilegalizazioaren haritik, Mila Larrañagak gaineratu zuen ez dutela hori egiteko arrazoi juridikorik: "Arrazoi politikoak bakarrik bilatzen dituzte, juridikoak falta zaizkielako, eta justizia demokraziaren lehen oinarria da", gaineratu zuen. Larrañagaren esanetan, "PSOEek Iraketik atera ditu soldaduak, baina horixe bakarrik egin du, Euskal Herriko arazoa konpontzeko ez du ezer egin, eta badi-rudi ez duela ezer egingo".

## DATOZEN EGUNETAKO EKITALDIAK

Herritarren Zerrendak azpimarratu zuen Euskal Herriak presentzia izan behar duela Europan. Egun hauetan, *Euskal Herria Europan* izenburupean hitzaldiak egiten ari dira. Esaterako, Aretxabaletan, Bergaran, Arrasaten, Antzuolan, Eskoriatzan eta Oñatin egin dituzte hitzaldiak aste honetan. Domekan, aldiz, maiatzaren 23an, gudariei omenaldia egingo diote Elgetan, Asentzioko bide gurutzean, hain zuzen ere. Datoren egunetan ere, oinarri ideologikoak eta programa politikoa aurkezteko ekitaldi ezberdinak egingo dituzte Debagoieneko hainbat herrietan.



## GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOP. ELK. BATZAR OROKORRA DEIALDIA

- Honen bidez, 2004ko maiatzaren 28an egingo dugun urteroko ohiko batzar orokorrerako dei egiten dut.
- Batzarra Arrasateko San Viator Txikioko aretoan (Arrasate pasealekua, 18) izango da, 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarren.

### GAI ZERRENDA

- Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
- 2003ko martxoaren 21eko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
- 2003ko kudeaketa txostena azaltzea.
- 2003ko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea.
- 2004ko kudeaketa plana eta aurrekontua onartzea.
- Errektore Kontseiluko kideak onartzea.
- Bazkideen hasierako ekarpena eta sarrera kuota eguneratzea.
- Estatutu aldaketak:
  - Goienaren helburuan, herri telebisten kudeaketa espresuki jasotzea.
  - Goiena irabazi asmorik gabeko kooperatiba dela jasotzea.
  - Hirugarren artikuluan, helbide soziala herri barrutiaren barruan aldatzea Errektore Kontseiluari dagokiola jasotzea.
- Galderak eta eskaerak.

Proposatutako aldaketen testua eta proposamenaren arrazoiak biltzen dituen txostena Goienako egoitzan duzue, bertan aztertu nahi izanez gero. Jakin ezazue Kooperatibaren Legearen 74. artikuluan arabera txosten hau etxean dohainik jasotzeko eskubidea duzuela. E-postaz bidaliko dizuegu. Hala ere, inork etxean jaso nahi izanez gero, dei dezala 943 79 21 00 telefono zenbakira eta egin eskaera Iratxeri.

**Errektore Kontseiluko lehendakaria**  
Arrasaten, 2004ko maiatzaren 11n.



ULMA Forja, Koop. Elk.  
Oñati

## OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIA

**EGUNA:** 2004ko maiatzaren 28a  
**ORDUA:** 15:00etan lehen deialdia eta 15:30ean bigarrena  
**TOKIA:** Oñatiko kultura etxea

### GAI ZERRENDA

- AURREKO AKTAREN ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BATZAR NAGUSI HONEN AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA
- 2003KO EKITALDIKO MEMORIA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, ETA 2004KO GESTIO PLANA BERRESTEA
- ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
- 2003KO EKITALDIKO KONTUAK ETA BALANTZEA AZTERTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA. 2004. URTERAKO AUDITORETZA ENTITATEA BERRAUTATZEA
- SOBERAKIN GARBIAK BANATZEA
- HEZIKETAKO ETA KOOPERATIBA-SUSTAPENEN FONDONEN (HKSF) ERABILERA
- EKONOMI ARAUBIDEKO ESTATUTU-XEDAPENAK
- EGITURAZ GAINDIKO ERAKUNDEKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIK
- ESTATUTU SOZIALEN 31, 52, 59, 62 ETA 64. ARTIKULUAK ALDATZEA
- KOOPERATIBAKO BARNE-ARAUDIAREN 40 ETA 46. ARTIKULUAK ALDATZEA
- KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
- KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
- ZAINZTA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
- KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
- GALDERAK ETA ESKAERAK

2004ko maiatza

**OHARRA:** Kontabilitate Liburuak eta Estatutu Sozialen eta Kooperatibako Barne Araudiaren artikuluen aldaketek buruzko informazioa bazkide guztien eskura daudela jakinarazten da.

## ANTZUOLA

**Mairuaren alardea bultzatzeko elkarte bat sortu dute herrian**

Datorren asteko eguenean, hilak 27, Mairuaren Alardearen Elkartearen aurkeztuko dute. Olanan etxean egingo dute aurkezpen hori, 19:00etan. Udaleko ordezkariak gain, Jaurilaritzako eta Diputazioko arduradunek ere parte hartuko dute ekitaldi horretan.

Elkarte hori arduratuko da aurrerantzean alardea antolatzeaz; bere helburua izango da alardea sendotzea, bultzatzea eta herritik kanpo ezagutaraztea. Jose Luis Kortabarrria izango da elkartearen presidentea. /A.I.



ARRASATE PRESS

## ARRASATE

**San Josepe harrobiaren kontra salaketa gehiago egin dituzte**

Aralar, Zutik eta EB alderdiek eta Ekologistak Martxan taldeak San Josepe harrobiarekin gertatzen ari dena salatuko dute. Harrobiaren kasuan, salatu dute Udalaren erabakiari kasu egin barik oraindik jardunean dabilzela, industrialdea egiteko gunea egokitu barik dutela eta, oro har, ez dutela bete Udalarekin hitzartutakoa. Jakinarazi dute, baita ere, harrobia itxi baino lehenago eta ostean leherketak egin zituztela San Josepen, eta kalkuluaren arabera, urtebete baino gehiagorako lana lortu dutela. Udalaren kasuan, besteak beste, salatu dute ez duela bete arazi udalbatzarrak osoko bilkuran harrobia ixteko hartutako erabakia; eta harrobiari erantzukizunak eskatu beharra exijitu diote. Jaurilaritzako Meatze Sailak leherketak egiteko baimenak ematea ere salatu dute. /U.M.

## ARAMAIO

**Lastertasun Handiko Trenaren proiektua aldatu egin dezakete**

Jaurilaritzako Herri Lan Sailak esan digu posible dela Lastertasun Handiko Trenaren proiektuan aldaketak egotea. Kontua da hasierako proiektua Jaurilaritzak egin arren, lanon zuzendaritza Madrilgo Sustapen Ministerioaren esku dagoela. Hala, haiek beharra ikusten badute, proiektua aldatu egin dezakete. Hain zuzen, Aramaion gerta liteke hori. Herritar batek kontatu digunez, joan den zapatuan bi topografo izan ziren baserrian, eta erakutsitako planoen arabera, tunelpean joan behar zuen zatia lur gainetik joango da. /U.M.

## ELGETA

**Asentzio Egunerako ekitaldi ugari antolatu ditu Gazte Asanbladak**

Domekan Asentzio Eguneko ospakizunak egingo dira Asentzio gaineko putzuaren aldamenean. Gazte Asanbladakoek dute ekitaldiak gertatzeko ardurua. Bizikleta lasterketarekin hasiko da eguna, 11:00etan. Ondoren, meza izango da Asentzioko basilizan, eta mezaren ostean, herriko dantzariak erakustaldia eskainiko dute. Koadrilen arteko herri kirolen txapelketa ere antolatu dute, eta bazkaria ere izango da. Eguna borobiltzeko triki-poteoa egingo dute herrian. /I.A.

## OÑATI

**Kalegoiena kaleko etxebizitzaren kontua argitu nahi du Udalak**

Azken asteotan Kalegoiena kaleko babes ofizialeko etxebizitzaren inguruan sortu diren esamesen inguruan, egoera argitu nahi izan du Udalak. Lehenbizi, babestutako etxebizitzaren promozio publikoa eta pribatua bereiztu egin behar direla dio Udalak.

Kalegoienean egingo diren 16 etxebizitzak promozio pribatukoak direla dio Udalak, eta abenduaren 30eko 315/2002 dekretua eta 2003ko abuztuaren 18ko aginduak jasotzen dutena bete behar dute. Hauek biek BOE bat eskuratzeko gutxieneko baldintzak ezartzen dituzte. Horrez gain, publikitate, konkurrentzia eta gardentasun printzipioak bete behar direla diote. Hala ere, aginduaren 1.2 artikulua dio aplikaziotik kanpo gelditzen direla kooperatibek, ondasun komunitateek eta norberaren erabilerarako egindako babes ofizialeko etxebizitzaren sustapen pribatuak. Promozioa publi-

koa balitz, adjudikazio horri 2004ko otsailaren 26ko agindua ezarri beharko litzaioke, hau da, Etxebiden inskribatua egotea, erroldako gutxieneko epea eta zozketa publikoa.

Udalak dio, ikerketak egin ondoren, babes ofizialeko etxebizitzaren promotore pribatuak kooperatiba sortu duela, eta ezin zaiola aplikatu 315/2002 dekretuak jasotzen dituen publikitate, konkurrentzia eta gardentasunaren printzipioak. Jaurilaritzako Udalarari jakinarazi dioenez, aurki indarrean jarriko da agindu bat, halako kasuak saihesteko balioko duena. /O.E.

## Zertzelada

**Udalak dio legearen barruan jokatu duela Kalegoieneko promotore pribatuak, baina kasuaren jarraipena egingo duela**

## BERGARA

**Udalan jasaten duten bazterketa salatu du Bergara Aurrera taldeak**

Udalan jasaten duten bazterketa salatu zuen Bergara Aurrerak eguaztenean, prentsaurrekoan. Hori delata, eta, mozioa aurkeztuko dute asteleheneko udalbatzarrean. Besteak beste, iazko udal hauteskundeetan BAK lortutako emaitzak errespetatzea eta dagokien ordezkari politikoak izatea aldarrikatzen dute:

“Gizarte eragile eta instituzioen arteko elkarrizketa eta konponketarako konpromisoa beharrezkoa da”.

Bestalde, martitzenean, maiatzaren 25ean, azken udal hauteskundeak egin zirenetik urtebete betetzen denez, BAK deitutako elkarretaratzea izango da San Martin plazan, 19:00etan hasita. /E.M.



OIHANA ELORZA

Udalan ordezkari politikoak izatea aldarrikatzen du BAK.

## ARETXABALETAKO

**Gobernuz Kanpoko Erakundeendako dirulaguntzak Udalak**

Aretxabaleako Udalak Gobernuz Kanpoko Erakunde- emateko arauak ezarri ditu. Udal aurrekontuaren ohiko sarreren 0,7 erabiliko du, eta aurten 35.511 euro izango da. Kopuruaren %15, baina, gorde egingo du sor daitezkeen larrialdi egoerarako.

GKEek edo pertsona partikularrek eska ditzakete dirulaguntzak, eta hainbat irizpide ezarri dituzte aurkeztutako garapen proiektuak baloratze-ko. Eskaerak egiteko epea uztailaren 7an bukatuko da; dagoeneko jaso dituzte zazpi eskaera Udalan. /M.A.

## ESKORIATZA

**Biblioteka, Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalan**

Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalan sartzeko gonbidapena egin diote bibliotekari, eta onartu egin dute. Ondorioz, liburutegian dauden katalogazioak aldatu egingo dira, eta sistema berrira egokitu. Horrela, liburutegien arteko maileguak koordinatu eta kudeatuko dituzte, bai EAEn, baita bertatik kanpo ere. Sistema berriak denbora aurreztuko die erabiltzaileei.

Udalaren eta bibliotekaren artean banatuko dute lana, eta bi hilabete- an, erdia birkatalogatuta egotea espero da. /Z.V.M.

## GATZAGA

**Foru Aldundiak 600 mila euro bideratuko ditu Leintz Gatzagara**

Gipuzkoako Foru Aldundiak dirua emango die hainbat herriri, zenbait lan egiteko. Besteak beste, kultura, errepide eta egoitzetarako erabili beharko dute dirua udalek. Gatzagak ere jasoko du dirua: 600.000 euro. Kopuru hori bideratuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak GI-627 errepidean lanak egiteko; bertan zoruua ondo berdindu gura dute, eta Arlabango bihurguneak hobetzeko izango omen da dirua. Adierazitakoaren arabera, 140 milioi euro banatuko dira Gipuzkoan. /Z.V.M.

**J**oseba Iriondo kazetaria da eta azkeneko urteotan, Afganistango eta Irakeko gatazken berriemaile lanetan jardun du ETBrendako. Iaz, *Palestina Hotela* liburua idatzi zuen —Jose Couso lankidea hil zuten tokia—. Bergaran izan da astean.

OIHANA ELORZA

**Ameriketako Estatu Batuetako soldaduek irakiarrei egindako torturak eta zibil amerikar bati lepoa nola moztu zioten ikusi dugu. Dena da zilegi gerran?**

Ez luke izan behar, behintzat.

Irudi hauek heldu zaizkigunean, ordea, pentsatu dut gizarte, batez ere mendebaldeko gizarte, faltsua dela, eta mota horretako irudiekin soilik ikaritzen dela. Alegia, tortura gogorra da, eta han dabilen estatubatuar *arraro* bat hiltzen dutenean, are gogorragoa da, baina badirudi irudiak ikusten ditugunean aztoratzen garela, orduan bakarrik. Baina nire iriziz, askoz ere gogorragoa da zibil irakiarrek hiltzea. Orain bertan, Kerbala, Najafen eta beste hainbat hiritan zibilak hiltzen ari dira; hamarnaka batzuk azken egun hauetan eta ehunka azken hilabeteotan. Toki horietan ez dago kamerarik, ez ditugu hilketa horiek ikusi, eta ez gara hain temati jartzen.

Nahiz eta informazio nahikoa izan hori benetan gertatzen ari dela jakiteko, argazkirik ezean, ikusten ez badugu, begien aurrean jartzen ez badigute, ez dugu ezer egiten.

**Kazetariaren lanak erakusten du, sarritan, gertatzen dena.**

Bai. Uste dut kazetarion lana garrantzitsua izaten dela horrelako egoeretan, nahiz eta gauza gutxi erakusteko ahalmena izaten dugun. Gauza gutxi horiek, bai informazioan, eta batez ere irudietan, jendearen barrenak astintzeko balio dute.

**AEBetan, esaterako, kazetari batek atera dituen argazkiak harrotu ditu hautsak.**


Kostatu zaie, baina egia esan, garaia ere bazen. Urtebete eta bi hilabete pasa dira Iraken aurkako inbasioa hasi zutenetik, eta kostatu zaie benetan gertatzen ari denaren inguruko irudiak erakustea, zentsurapean ibili direlako urtebete pasa.

Soldadu estatubatuarrek hilkutxetan agertzen diren irudiak, gainera, beraiek argitara atera behar zituzten. Horrelako informazioa beraiek sortzen dute, eta ez dute beste herrialde batzuetako kazetarien esku uzten. Garbi zegoen beraiek atera behar zituztela. Berandu izango da, agian, baina bada zerbait.

**Duela gutxi irakurri diot Israelen korresponstal dagoen kazetari bati, askotan, hango egoera lasaigoa dela tokian bertan telebistan erakusten digutena baino.**

Hori toki guztietan gertatzen da. Euskal Herrian ere, urtetan bizi dugu egoera hori. Izan ere, kanpotik begiratuta, badirudi gerran bizi garela hemen ere. Telebista kamerarekin grabatutako irudiak kilometro askora dagoen toki batean grabatutakoak izaten dira sarritan. Gertaeza guztiak ez dira kazetaria dagoen tokian gertatzen; bestela, egoera jasangaitza izango litzateke. Baina hori bazter guztietan gertatzen da; badirudi herri bat dagoela sutan, eta agian, herriko zati batean gertatu da ezbeharra.

**Nola igarotzen da gerrako berriemaile baten eguna?**



OIHANA ELORZA

## Joseba Iriondo

KAZETARIA

# “Gezuraren garraiatzaile bihurtzen gara batzuetan kazetariok”

SOLDADUAK IRAKETIK ATERATZEA

**“AEBek diktadura tarteko isilik egon den gizarteaz aztoratu egin dute, eta inbasioaren aurka egon arren, ez dut uste une egokia denik soldadu guztiak erretiratzeko”**

IRAKEN AURKAKO GERRAREN ‘FAKTURA’

**“Nahiko nuke Bushek azaroko hauteskundeetan ordainduko balu gerraren faktura. Jaurti dituen bonbena handik aterako duen petrolioarekin ordainduko du, beti bezala”**

Ni azken aldiz irailean izan nintzen, Iraken. Baina duela gutxi hitz egin dut handik etorri berria den lankide batekin, eta hark esan dit ia ezinezkoa dela han egoitea, hoteletik irtetea ere arriskutsu bihurtu delako. Alde batetik bestera joateko orduan, bestalde, *check point* edo kontrol asko jartzen dituzte errepideetan. Kontrol horietako batzuk bertako soldaduek edo soldadu estatubatuarrek jartzen dituzte, eta kontu handiz ibili behar da, zenbaitean tiro egiten dutelako. Beste kontrol

batzuk, aldiz, Al-Sadren milizietakoak dira, eta horietan are kontu handiagoa izan behar da, atxilotu edo bahitu egiten zaituztelako. Kazetariendako, une honetan, ia toki ezinezkoa da. Bonbardaketak izan ziren egunetan zeuden kazetari erdiak ere ez daude une honetan han. Dauden gehienak, ia guztiak, bertako kazetariak dira, eta irudiak grabatzen dituztenak ere hango kamerariak dira.

**Zein baliabide ditu gerran lanean diharduen kazetariak?**

Telebistarako bideoa han ikusten duenarekin egiten da hein handi baten. Informazioa lortzea, aldiz, zailagoa izaten da, gezurretan aritzen direlako alde guztiak eta kazetaria manipulatu izaten delako helburu nagusia. Beraz, erdibideko zerbait bilatu behar diozu zure lanari. Ikusi duzuna konta dezakezu, ikusi duzun bezala, eta zure irizpide eta aurreiritzi guztiekin akatsak egin ditzakezu, baina kontaketa bat da. Hala ere, gerraren *makroinformazioa* egitea oso zaila izaten da, eta norberak idatzi duena handik denbora batera berriro irakurtzen duenean galdetzen dio bereburuari nolatan idatzi zuen hura. Baina askotan, gezurraren garraiatzaile bihurtzen gara kazetariok; ez dugu informazio guztia, eta askotan, ziria sartzen digute.

**Egia da kanpotik hobeto ikusten dela gertatzen dena bertan egonda baino?**

Ez dut uste horrela denik. Bertan zaudenean, neurria hartzen diozu informazioari. Hildakoak, zaurituak, txikizioa ikusten dituzunean, egiten duzun kontaketa behin ere ez da berdina izango han egonda edo hemen egonda. Jendea sufritzen ikusteak asko aldatzen du kontaketa. Aldiz, duela urtebete-edo, guk ez genekien AEBetako soldaduek non zeuden, eta informazio hori hemendik heltzen zitzaigun, Iurretatik nire kasuan. Guk, han, ez dugu ikuspegi orokorrik, baina kanpoko ikuspegi orokorra ere ezberdina da, interesak tarteko.

**Datuen arabera, 2003an, 42 kazetari hil zituzten munduan barrena, tartean, Julio Anguita Parrado *El Mundo* egunkariko kazetaria, Ricardo Ortega Antena 3koa eta Jose Couso T5eko kameralaria. Zergatik eraso egiten diete kazetariei?**

Pentsatzen dut gero eta kazetari gehiago dagoela nazioarteko gatazka kontatzen. Orain, merkeagoa da komunikabide askorendako; ETBrendako, adibidez. Eta horrez gain, batzuetan badira helburu eta bestetan ez. Esaterako, Palestinan ez dira, Iraken orain bihurtu dira, atzerriarrak direlako, eta Haitin ere, Antena 3ko kazetariaren aurka egin zutenean, propio egin zuten.

Palestina hotelean geundenok, Jose Couso hil zuten tokian, mehatxuak jaso genituen egun batzuk lehenago, hotela helburu militar bihurtuko zela esanez. Nik uste dut ez zitzaizela gure lana gustatu, interesatzen ez zitzaizena erakustea, alegia.

**Orduan, kazetari askok aipatu zuten *gezurra* hitza.**

Bai. Normalean, oso gutxitan erabiltzen dugu hitz hori kazetariok, baina Jose Cousoaren erailketaren aurrean, denok erabili dugu, denok ikusi genuelako zer gertatu zen.

**Azaroran dira hauteskundeak AEBetan. Orduan ordainduko du Bushek gerraren faktura?**

Nahiago nuke, baina ez dut uste John Kerryk gauzak asko aldatuko litzuzkeenik. Alegia, ez dut uste hark ere AEBetako soldaduek aterako dituenik. Hala ere, eta inbasioaren aurka nagoen arren, uste dut, orain, arriskutsua dela handik soldadu guztiak ateratzea. AEBek diktadura tarteko isilik bizi izan den gizarteaz aztoratu egin dute, eta indar militarrek beharrezkoak izan daitezke. *Faktura* ordaindu behar dute, bota dituzten bomba guztien faktura, eta hori, aterako duten petrolioarekin ordainduko dute, orain arte egin duten moduan. Petrolioak jakien truke programa, besteak beste, 1991ko gerrako *faktura* ordaintzeko bidea zen.

Bestalde, zurrumurru batek dio Bushek badakiela non dagoen Bin Laden, baina hauteskunde bezperan esango duela. Ez dut uste egia denik, baina Bin Ladenen atxiloteta hauteskundeak irabazteko beharko duen puntu bat izango litzateke.

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:  
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA  
Telefonoa: 943 76 92 71  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: goienkaria@goiena.com



## Kalegoienako etxeak

Azken egun hauetan Kalegoienako Babes Ofizialeko Etxebizitzen (BOE) inguruan sortu diren esamesen haritik, honakoak argitu nahi ditu Oñatiko Udalak:

Lehenengoa: Babestuko etxebizitzen promozioan bereiztu egin behar da promozio publikoa eta pribatua:

- Kalegoienan egingo diren Babestu-tako 16 etxebizitzak promozio pribatukoak dira eta ondorioz, abenduaren 30eko 315/2002 Dekretua eta 2003ko abuztuaren 18ko Agindua betetzea dagokie; bai Dekretuak eta bai Aginduak, BOE bat eskurtzeko gutxienezko baldintzak ezartzen dituzte eta gero diote edonola ere, publizitate, konkurrentzia, eta gardentasun printzipioak errespetatuz egingo dela (Dekretuko 12. art.). Nolanahi ere Aginduan 1.2 artikulua honela dio: "Era berean Agindu honen aplikaziotik kanpo geratzen dira kooperatibek, ondasun komunitateek edo eta norberaren erabilerarako egindako BOEen sustapen pribatuak".

- Kalegoienakoa promozioa publikoa izan balitz (Udalen etxebizitzaren promozioa, edo toki erakunde autonomoena, udal sozietate publikoena edo eta promotore pribatuekin sinatutako kome- nioen bidezko haiena) adjudikazio horri 2004ko otsailaren 26ko Agindua ezarri beharko litzaioke, alegia, Etxebiden inskribatuta egotea, erroldako gutxieneko epea eta zozketa publikoa.

Bigarrena: Udal honek egindako ikerketen arabera, Kalegoienako BOEen promotore pribatuak 2003ko abuztuaren 18ko Aginduaren 1.2 artikuluariku heldu diola, alegia, Kalegoienako BOEko 16 etxebizitza sustatzeko kooperatiba bat sortu duela eta ondorioz, ezin zaizkiola aplikatu 315/2002 Dekretuko publizitate, konkurrentzia eta gardentasunaren printzipio orokorrak.

Hirugarrena: Promozioaren izaera pribatua kontuan izanik, Oñatiko Udalak ez duela eskumenik promotoreari adjudikazioari begirako inolako baldintzarik jartzeko, eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren esku geratzen dela egindako adjudikazio moduaren kontrola eta fiskalizazioa.

Azkenik, hauxe erantsi nahi dugu, Promotoreak erabili duen adjudikazio moduak herrian sortu duen ondoeza ikusita:

Lehenengoa: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailerik jakinarazi digutela, ari direla Agindu berri bat lantzen, aurrerantzerantz jarri dena eta Kalegoienan gertaturikoa bezalako kasuak konpontzeko balioko duena, hau da, BOE-en promoziorako kooperatibak eratzeko aukerari betebeharrak erantsiko zaio: zozketa publikoa erabili beharko da, etxebizitza kopurua eskatzaileena baino txikiagoa den kasutan kooperatibako kideak aukeratzeko.

Bigarrena: Sortu den informazioa dela eta, Oñatiko Udalak kasuaren jarraitzea egingo du eta egokia izanez gero, sumatu lezakeen legez kontrako edozein urrats zuzentzeko bere esku egon daitezen neurri guztiak hartuko lituzke.

ANDONI GARTZIA URITAZA  
OÑATIKO ALKATEA  
Oñati

Udaletan  
plataformen  
partehartzeari  
buruzko mozioak

Datorren martitzenean urtebete izango da Udal hauteskundeak egin zirela, eta herri plataformetako ordezkariak agerraldia egin zuten atzo, martitzena, plataformek udaletan dagokien ordezkarietza errespetatzea eskatzeko mozioak aurkeztu dituztela berri emanez. Prentsaurreko horretan PP, PSOE, PNV, EA, EB-IU eta Aralarren jarrera, ezberdintasunik egin gabe, salatu zen.

Aralarrek beste behin ere gezuratu egin behar du legez kanporatutako plataformen ordezkariak prentsaurreko horretan esan dutena. Aralar alderdi politikoa ez du berari ez zegokion kargurik hartu, Leitzako zinegotzi batena salbu; eta hura, Larrain plataformarekin adostasunean egin zuen UPNk ez zezan Leitzako alkatezta lortu. Gainontzekotan ez du berari ez zegokion kargurik hartu.

Aralarrek lehen eta orain herritar bezala legez kanporatutako plataformetako kideek ordezkariak izateko duten eskubidea onartzen du. Areago, Aralarrek alkatezta duen tokietan parte hartzeko bidea eman die plataformetako ordezkariari. Leitzako kasuan, joan den astean zenbait hedabidetan azaldu zen bezala, akordio zehatzetara iritsi ginen Larrain plataformarekin eta Eusko Alkartasuna izan da han atzera egin duena. Ordainetan milaka kartel zabaldu zituzten plataformen aulkia hartu genituela esanez. Akusazio hori faltsua da eta gezurra esaten ari dira.

Beraien proposamenei beti ezezkorekin erantzun diezula adierazi zuten, jakin badakitenean hori gezurra dela eta irtenbiderako proposamenekin erantzun diezula. Hainbat udaletan gurea izan da lehendabiziko proposamena. Debagoienean ere ahalegin berezia eginen ziren Aralarrek dagokiena izan dezaten plataformek.

Aralarri lotsagarria iruditzen zaio, azkenik, aipatzen dituzten alderdi guztien artean UPNren izena ez agertzea, legez kanporatzeari esker Nafarroako

Gobernua eskuratu dutela kontuan izanda. Horrek erakusten du, gure ustez, atzoko agerraldikoak hauteskunde aurreko giroan batzuei min egiteko salaketak baino ez direla izan.

DEBAGOIENENKO ARALAR  
Aralar

Elgetako Udalaren  
2004ko aurrekontuak

Elgeta Auzolanian taldeak, Elgetako Udaleko aurtengo aurrekontuak aztertu ditu eta ondorio hauetara iritsi gara.

Aurrekontu hauek oso desorekatuak daude: gastuen seitek bost eraikuntzan inbertitzen dira, Honek esan nahi du datorren hamarkadetan alda ezin izango direla orain hartutako erabakiak (Adibidea hor dugu Erostarbe Industria eremua, Herriko tokirik onenean, bertan beste zerbait egiteko aukerarik gabe).

Industria eremuan Elgetako bizi lagun haina langile egon litzake, ez da bakarrik eraikin horien uneko diru sarrerak begiratu behar eta Gerora zer?

Kulturaren, pertsonalean eta eraikinetan egin eta mantentzen gastatu behar da diru gehien. Noizko ekintzen programa bat?

Turismoa, ukitu ere ez da egin.

Mendia. Berriz eraikinak (mendi museoak) eta Intxortan lurra berreskuratzeko zegoen dirua lehen pentsatu baino gutxiago.

Ingurugiroa, energia alternatiboak, Noizko?

Nekazaritzan pistak bai baina beste saiakerarik egin gabe bide berriak urratzeko.

Etxebizitza bakarreko etxeak eraikitzea. Kontuan izanda Gipuzkoako duen lur gabezia, oso zaila da ulertzea gutxi batzuen solaserako lurra mugatzea.

Diru sarreraren eta gastuen oreka ikusteko Lourdeseko Amabirjinari kandela jarri beharko zaio. Hau guztia ikusita ere oso mugimendu gutxi egitea legoke urte honetan, gastu gehienak finkoak direlako, edo inbertsioak martxan dudelako. Gure ustez filosofia aldaketa bat orokorrean behar da, inguru giroa eta gure bizi baldintzak mugatu gabe, irtenbideak aurkitzen utziko dituenak.

ELGETA AUZOLANIAN  
Elgeta

'Putz' aldizkaria:  
ishiltzeko ordua

'Putz' aldizkariaren erredakzioaren kideek aldizkariaren jarduna etetea erabaki genuen urte hasieran. Lau urte bete berritan hil zen 'Putz', 23 aldizkari (1.200 orrialde), 6 liburu eta CD bi argitaratu ostean.

Ishilean lurperatu genuen aldizkaria, inori ezer esan barik, intimitate itxian. Harrezkero, ia bost hilabete pasatu direnean, hasi zaizkigu harpidedunak deseperatuki, erabat euren onetik irtenda, aldizkari eskean, 'Putz'-ek utzitako hutsune espirituala ez Alaren laguntzaz ez

Budaren bitartekotzaz ez Maruriko parroko ohiaren sermoiekin bete ezinda. Dene- tik bidali digute abstinentzia sindrome- ak jotako lagun 'Putzomanek' erredak- ziora: maitasun eta afektuzko aitortza sentituak, benetako odoletan bustitako lumaz izkiriaturiko lerro beherantz makurtuak, bularretakoak, garzontzilo zikin batzuk, aurrera jarraitzeko ekar- pen ekonomiko izugarriak... Eta zer ez!

Hau dena ikusita, zalantzan egon gara azkenaldian, komunikatu hau idatzi ez idatzi, 'Putz'-en behin betiko aka- bera iragartzeak ez ote zituen lagun hauek guztiak suizidiora bultzatuko... Baina luze eta sakonki hausnartu ondo- ren, erabaki dugu argi eta klarki adie- raztea 'Putz'-en egin duela. Eta orain, bere buruaz beste egin gura duenak, jakin beza guretzat martiria izango dela, eta betirako gordeko diogula lekutxo bat gure bihotzean.

Bat baino gehiago izan dira 'Putz'-en jarduna etetera eraman gaituzten ar- razoak, baina denetan garrantzitsuenak, zalantza barik, hauxe: gure kale- inkes- ta ataleko kolaboratzaile Ariel Sharin- i ezarri berri dioten heriotza-zigorra. Dakizuenez, Ariel Sharin, Bilboko metroan gas-puxikak banatzen ibili ohi zen Gas-plazako gas-tetxero japoniarra, urkatu egingo dute Japonen, bertako agintari eta juze ustelak hala erabakita. Lur jota gaude, aldizkariari heltzeko indar eta adore barik, Ariel Sharinen ausentzia guretako latzegia izango dela etsita. Zer egingo dugu orduan, Sharin urkatzen duten egunean? Inmolatu?

Une triste eta gogor hauetan, eske- rrak eman gura dizkizuegu 'Putz'-eko kolaboratzaile, harpidedun, erosle, ira- kurle eta modu batera edo bestera aben- tura honetan bidaide izan zaituztegun guztiok.

Sharin askatu!

'PUTZ'-EKO ERREDAKZIOA  
Debagoiena

Lurgintza Nekazari  
Kooperatibarekiko  
Gipuzkoako Foru  
Aldundiaren jarrera

Lurgintza Nekazari Kooperatiba due- lla 33 urte sortu zen. Baserritarrok eta baserritarrontzat sortu genuen Gipuzkoan kooperatiba hau. Hasierako pau- so zail bezain garrantzitsu haieran eta ondorengo urteetan ere Balentin Zamo- ra apaiza izan genuen bidelagun. Filo- sofia jakin batetan oinarritu zen Lur- gintza Kooperatibaren sorrera, beharra eta izateko arrazoia. Hau da, baserrita- rrok gure baserriko aktibitatea, bizi kalitate eta bizi maila hobetzea ahalbi- detuko zuen bitarteko eraginkor bezain sendoa eraikitzea. Behar genituen zer- bitzu, aholku eta abarren gune garran- tzitsu eta ezinbestekoa izatea, guk geuk kooperatibaren gidaritzea eramanaz.

Urte guzti hauetan Lurgintzaren inguruan estrukturatu da Gipuzkoako lehen sektorea zerbitzuei dagokien ata- lean. Hamahiru elkarre sektorial, bede- ratzi kooperatiba eta hirurehun base- rritarretik gora Lurgintzaren bidez era-



man ditugu gure gestio tekniko ekonomikoak, gure kooperatiba eta elkartee-tako administrazio eta koordinazio lanak eta abar. Esan beharrik ez dago Lurgintzak oso paper garrantzitsua jokatu behar duela baserri-tarron zerbitzura eta gure interesei begira lan eginaz.

Azken urte hauetan gure sektorea egoera zail bat bizitzen ari da. Nekazari politika ezberdinek markatu dizkiguten bideak eta betebeharrak bidegurutze batean jarri gaituzte. Gure aktibitatearekin jarraitzeko ditugun traba eta oztopo guztiak gainditzeko gero eta zerbitzu gehiago eta hobeak behar ditugu.

Jasotzen ditugun zerbitzuak hobetzeko, ditugun behar horiek zeintzuk diren eta kooperatiba bera nola egokitu beharko genukeen erabakitzeko Plan Estrategiko bat abian jarria dugu.

Baina badirudi baserri-tarrak gure artean eztabaidatu, erabakiak hartu eta inoren morroi izan gabe aurrera jarraitzea ez dela batzuen gustuko.

Sektore honetan, beste edozein sektoretan bezala, diru publikoa beharrezkoa dugu ditugun estrukturalak mantendu eta aurrera atera ahal izateko. Baina badirudi Foru Aldundira iritsi zaizkigun politikoei eta konkretuki Nekazaritza Departamentuko ardura-dunek baserri-tarrak beraien morroi izatea nahi dutela. Beraien morroi edo bestela diru publikorik gabe gelditu behar.

Inposaketa eta mehatxua erabiliak elkarte sektoriale beraien funtzionamendurako urteetan eman zaien dirua kendu nahi zaie, eta Nekazaritza Departamentuak bultzatuta horretarako sortu berri duten enpresa pribatu batetara bideratu, elkarteen iritzia ezertarako kontutan hartu gabe. Estrategia honekin txori bat baino gehiago harrapatu nahi dituzte tiro batez, elkar-teei duten autonomia kendu, beraien sortu duten enpresa finantzatu, sektorean urte luze hauetan egin den estrukturalak hankaz gora jarri eta bide batez Lurgintza ekonomikoki zigortu eta desagerrarazi. Nork ematen du gehiago?

Txabarri jaunak 10 bat eman zion Foru Aldundian osatu zuen ekipo berriari. Elkarrizketan oinarritutako legealdia izango zela agindu zigun. Non gelditzen dira hitz horiek?. Txabarri jaunak ekipoari eman zion kalifikazio horretan, hasierako zenbakia soberan dago Nekazaritza Departamentuari dago-kionean.

Lurgintzan duela urte gutxi batzuk kargu politiko baten prepotentzia, inposaketa, mehatxua eta zigorra ezagutu genituen, jokabide hauek ez dira berriak guretzat. Zoritxarrez baserri-tarrak horrelako pasabideak askotan jasan behar izan ditugu. Duintasunez aurrera jarraituko dugu gure bidea eta ziur gaude denborak bakoitza bere lekuan jarriko duela. Horrelako sasipolitikoe-tatik San Isidro anpara gaitzala!

MARIAJE INTXAUSTI ONDA,  
LURGINTZAKO LEHENDAKARIA  
Gipuzkoa

Azko idatzi eta hitz egin da azken asteotan xakearen gainean. Batik bat Jose Ramon Garai Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariak xakea kirola ez dela

esan duenetik sortu da eztabaida. Egia esateko, eztabaida hau zaharra da eta, dagoeneko, amaituta zegoela zirudien. Baina, Jaurlaritzaren asmoen ondotik, sekulako

zalaparta sortu da xake jokalaria eta elkarteen artean batez ere. Artikulu- luan, xakea kirola dela baieztatzen du Josu Tornay Arrasate-San Andres XEko presidenteak.

XAKEA KIROLA DA?

## Fundamentalismoa ala burugogorkeria?

Zer da kirola? Definizio- tan zera esaten da:

“Lehia”; “trebetasuna, indarra eta adimena edo hiru horien nahasketa”; “denborapasa eta dibertsioa”; “aire zabalean egindako ariketa fisikoa”; eta abar. Baina argi dago ez dagoela definizio unibertsal onarturik. Hala ere, Eusko Jaurlaritzako kirol teknikari adimentsu batek kaos zatar horrekin amaitu du. Horregatik, J. R. Garaik, departa- mentuaren zuzendariak, batza- rretan zera errepikatzen du, segurtasunez eta konpulsio- boki: “Xakea ariketa mentala da eta ez fisikoa”. Agian, Garai jaunaren adimena gorputza- rengandik banatuta bizi da, baina niri dagokidanez, behin- tza, adimenak parte hartzen du egiten dudan ariketa fisiko txikienean ere, mentala edo muskularra izan. Xakea kirola da? Lehiaketa mailan, teni- sa egon daitekeen bezain ondo egituratuta dago munduan; xakean zorteak ez du eraginik —hortaz, ez dezagun konpa- ratu partxisarekin edo musa- rekin, Garai jaunak egiten duen moduan—; prestakun- tza fisikoa faktore klabea da alderdi guztietan eta emaitza erabaki dezake (entrenamen- duak egunero, sei ordura arte- ko partidak, erlojuz kontrako borroka, karbohidratoen kont- sumo handia frogatuta dago...); eta neke fisikoa ager- tu eta pilatu egiten da.

Piezek hamar kilo pisatu beharko lukete EJK kiroltzat hartzeko? Ala mugimenduen ostean araudiak xakelaria behartuko balu taulari buelta bat ematen? Ala pare bat flexio-ekin nahikoa litzateke?

Zergatik kentzen du EJK xakea kirol federazioen zerren- datik, Euskadin 30 urteko erre- konozimendua izan ostean? Arrazoi ekonomikoak? Xake- ak urtero jasotzen duen limos- nak ez du bide ematen horren- besterainoko zalaparta sortze- ko. Gainera, EJK denbora nahikoa izan du jakiteko xakea Europara sartu zela orain dela



JOSU TORNAY  
Arrasate-San Andres XEko  
presidentea eta Euskal Xake  
Federazioko kolaboratzailea

“Xakea, lehiaketa  
mailan, tenisa  
bezain ondo  
egituratuta dago  
munduan”

“Piezek hamar  
kilo pisatu  
beharko lukete  
EJK kiroltzat  
hartzeko?”

1.000 urte Euskal Herritik, eta gaur egun laugarren eskola kirola dela, partaidetzari dago- kionez, Euskal Autonomia Erkidegoan. Hala, Garairen eta haren teknikari ilumina- tuen arrazoiak bi bakarrik izan daitekeela bururatzen zait: fun- damentalismoa edo burugo- gorkeria.

Ingurune baten existitzen da halako kirol fundamen- talismo bat, xakeari eta beste kirol batzuei begiratzen diena ageriko mespretxuarekin. “Ez doaz praka motzetan: ez dira kirolariak”. Hori izan liteke pentsamendu itxi horren labur-

pena. Baina hori iritzi bat bes- terik ez da, beste batzuk bezain errespetagarria. Larria eta arriskutsua dena da ezjakin- tasunean oinarritutako iritzi partikular bat dekretu-proiektu bihurtzea. Izan ere, gure politikoei uste dute imosatu egin diezaioketela gizartearen errealitateari bulego baten sor- tutako entelekia bat? Halako baten kazetaritza zer den defi- nituko dute eta dirulaguntzak kenduko dizkiote komunika- bideren bati, hura desegiteaz gain? Bestalde, Euskadin dago- eneko baldin badakigu xakea kirola ez dela, proposatuko nuke mundu osoari komuni- katzea hori, erratuta dabilela ematen du-eta. Baina horre- tan ere ez ginatete originalak izango, beste batzuk izan dira- eta aurretik: Txinako Iraultza Kulturala, Khomeini Iranen eta talibanak Afganistanen. Horiek dira adibide bakarrak mundu osoan—Garaik esaten duena esaten duela, egunero asmatzen du-eta zerbait— xakea kirolen zerrendatik ken- du dutena, nahiz eta aurretik kategoria hori izan. Proiektu hori egin dutenek ikusi dute inoiz lehiaketaren bat? Berba- rik egin dute gaian jantzita dagoen norbaitekin? Gertuko etsenplu bat jartzearen, Jon Esturo Loiolarekin harrema- netan jar zitezkeen, SHEEn lizentziaduna eta Goi Mailako Ikasketen Zentro Olinpiar- rakk saritua, 1999an, xakearen gai- neko masterragatik. Baina ez, fundamentalismoak, esanda- ko arrazoiak aintzat ez hartzeaz gain, definizio itxienetara era- man ohi ditu gauzak: kirolari izateko izerditu egin behar da. Horregatik eman diete kirol kategoria proiektu berean (eta ez da broma) zaku-lasterketei eta idi-demei. Zeinek izango du federatu txartela? Idiek? Une honetan, gure kirol buruza- gien itxikeria azaltzeko beste arrazoi posiblea izango litzate- ke burugogorkeria. Zelan onartu behar dute hanka sar- tu dutela? Izan ere, gaur egun politikagintzan oso txartzat

hartzten da hanka-sartzeak onartzea.

Baina beste galdera batzuk sortzen dira:

1. Beharrezkoa zen EJ eremu labainkor horretan sartzea? EZ. Nazioartean ez dago polemikarik eta orain dela 40 urte izan ziren eztabaidak itxi- ta daude. NOBk (COI) xakea kirol bezala onartu zuen eta Sydneyko Olinpiar Jokoetan sartu zuen, erakustaldi-kirol gisa.

2. Proiektu hori hain txar- rra da euskal xakearentzat? BAI. Dirulaguntza erregula- rrak ezabatzeak hil egingo luke xakea Euskadin lehiaketa mai- lan. Tira, Garaik gomendatu zigun dirulaguntza eskatzea Coca-Colari. No comment.

3. Beharrezkoa da lehiaketa- tzako xakea bizirik mantentzea Euskadin? BAI. Besteak beste, euskal selekzioa gehien mugitu den kiroletako bat da, eta agian bakarra da zazpi probintzien liga erregular bate- ratua duena. Xakeak, gainera, beste kirol batzuetan aukera- rik ez dutenei kirol-irteera eskaintzen die, eta umeengan garatzen du arretari eustea eta erabakiak hartzea, pentsatze- ko ohitura. Ez da hori izango EJ gogaitzen duena?

Baina erantzunik ez duen galdera honakoa da: zer egin behar dute EAEn federazio- lizentzia duten 2.000 lagunek baino gehiagok? Eta nahiz eta federatuta ez egon baina lehiaketa- tan parte hartzen duten ia 5.000 lagunek? Eta federazioak sustatutako jardueretan xakea praktikatzen duten 10.000 ume- ek baino gehiagok?

Aukera bat zabalik dago: Espainiako Federazioak anto- latzea euskal xakea Madrildik. Ez dago zertan azaldu horrek zer ekarriko lukeen, eta arra- roa iruditzen zait EJtik ez ikus- tea. Orain dela gutxi, Garai jaunak artikulua bat idatzi zuen gai honen gainean, eta “No estamos locos” izenburua zera- man. Bada, ikusitakoak ikusi- ta, nire erantzunik hau izan behar du: “Hori ematen du”.

# Zegama-Aizkorri, munduko kopan

42,195 kilometroko ibilbidea eta 5.472 metroko gorabehera metatua dute korrikalariak

OIHANA ELORZA

**H**irurehunetik gora korrikalarik hartuko dute parte domekan egingo duten Zegama-Aizkorri mendi maratoian. Suitza, Italia, Katalunia, Madril eta Euskal Herrikoak dira, besteak beste. Antolatzaileek dena gertu daukate. Euskal Herriko Txapelketako proba ere bada.

Hirugarren aldiz antolatu du aurtun Zegamako Aizkorriko lagun elkarteak, Amezti mendi elkartearekin batera, Zegama-Aizkorri mendi maratoia. Proba gaztea da, beraz, baina izugarriko arrakasta lortu du, bai parte hartu duten korrikalari kopuruagatik, bai antolakuntzagatik, bai paisaiatik eta baita proba ikustera joaten den jende kopuruagatik ere. Hau ikusita, munduko kopan sartzea erabaki du nazioarteko federazioak.

200 zegamar baino gehiago ibiliko dira, domekan, antolakuntzan.

## PROBAREN FITXA TEKNIKOA

Ibilbidearen eta probaren ezauzgarriak aurreko urteetako ia



Rosa Lasagabaster da parte hartuko duen Debagoieneko emakume bakarra.

berak izango dira. Zailtasun handiko lasterketa da. Zegaman hasi eta Zegaman bukatuko da. Korrikalariak Otzaurte, Aratz, Aizkorri, Aitxuri, Urbia eta Andrai-

tzetik igaro beharko dute. Guztira, 42,195 kilometro ditu ibilbideak; 12 pasagune, jana eta edana jasoko duten 11 puntu, 4tan, likidoa soilik; hiru kronometra-

je kontrol eta Aizkorri egongo den tarteko helmuga bat. 150 litro ur eta edari isoteriko egongo dira puntu bakoitzean, eta ibilbide osoan, 150 kilo laranja, eta beste horrenbeste kilo platano. Janari eta edari puntuetan, energia ematen duen menbriloa ere emango zaie korrikalariari, eta txandaka, glukosa eta barrita energetikoak.

Goizeko 09:00etan abiatuko dira korrikalariak Zegamatik. 11:15 inguruan lehen korrikalariak Aizkorri paretik pasako direla uste da, eta 13:00ak aldera espero da lehen korrikalaria Zegamako helmugan. Joan den urteko gizonezko irabazleak lau ordu eta zortzi minutu behar izan zituen maratoia egiteko, eta ordu bat gehiago lehen emakumeak. Korrikalariak zortzi ordu dituzte proba amaitzeko; 17:00etan helmugako kontrol guztiak kenduko dituzte.

Guztira, 333 korrikalari onartu dituzte. Horietatik 34 debagoiendarrak dira. Proba ikustera joango den jendeari, antolakuntzari kasu egitea, mendia garbi uztea eta korrikalariari enbarru ez egitea eskatzen die antolakuntza taldeak.

## Ez dute egingo Debagoieneko triatloi proba

OIHANA ELORZA

Datorren ekainaren 5ean zuten egitekoa, Arrasaten, Debagoieneko triatloi proba, baina ez dute egingo. Arrazoi ekonomikoak eta antolakuntza arazoak tarteko, Debagoieneko Antxintxika triatloi taldeak aurtengo proba bertan behera uztea erabaki du.

Antxintxika triatloi taldeak esan duenez, ez dute diru nahikorik lortu Debagoieneko triatloi proba antolatzeko, dirulaguntzak gero eta murriztagoak omen dira. Arrazoi ekonomikoaz gain, antolakuntza arazoak ere izan dituztela esan du Antxintxika taldeak. Urkulun hasi eta Arrasaten bukatu behar zuen proba behar bezala antolatzeko, 100 lagun behar zituzten. Ez dute kopuru hori lortu, eta beraz, ezin dutela parte-hartzaileen segurtasuna bermatu gaineratu dute.

Arrakasta handia lortu zuen probak urte gutxian. Antolatzaileek aurrerago beste proba bat prestatu nahi dutela esan dute, eta orain, hausnartzeko garaia dela.

# Laster dira Debagoieneko kirol jaiak

Haurrek, erretiratuek eta ezinduek gozatu ahal izango dute kirol jai horietan

**A**urten ere, haurren, erretiratuendako eta ezinduekiko kirol jaiak antolatu ditu Debagoieneko Kirol Zerbitzuak.

Datorren ekainaren 5ean, adibidez, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoko ikasleendako

kirol jaiak egingo da Oñatin, Zubikoa kiroldegian. Goiz osoan, igerilekuan, kantxan eta pilotalekuan antolatuko diren kirolen parte hartuko dute. Besteak beste, eskalada, spinninga, ohe elastikoak, waterpoloak, aerobika eta badminton izango dituzte.

te. Eta 50 minutu izango dituzte kirol esparru bakoitzean.

Ekainaren 11n, Aretxabale-tako kiroldegian erretiratuen kirol jaiak egingo da. Batzuk ibilaldia egitera joango dira eta besteak tokean, diabolarekin eta pilotan ibiliko dira. Kirol-

degian bertan eta ondoko futbol zelaian egingo dituzte kirolak. Hurrengo egunean, ekainaren 12an, boccian, aulki gaineko saskibaloian, aerobika egiten, baloi erraldoiekin jolasean eta beste hainbat ekintzatan arituko dira ezinduek, Antzuolan.

## DEBAGOIENeko KIROL JAIK

MAILA	HERRIA	EGUNA	ORDUAK	NORENDAKO	KIROLA
Umeak	Oñati	Ekainaren 5ean	10:30-13:00	LHko 5. eta 6. mailetakoko ikasleak	Igerilekuan, kantxan eta pilotalekuan
Helduak	Aretxabaleta	Ekainaren 11n	15:00-18:00	Helduak	Tokea, ibilaldia, diabolak, pilota, etab.
Elbarriak	Antzuola	Ekainaren 12an	10:30-13:00	Ezinduek	Boccia, aerobika, baloi erraldoiak, etab.



## KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA  
kirol zerbitzua

**MENDIKOI ARKAUTE NEKAZARITZA ESKOLA**  
01192 ARKAUTE (ARABA)  
Tel.: 945.285387 Faxa: 945.284955  
earkaute@mendikoi.net

**MENDIKOI DERIO NEKAZARITZA ESKOLA**  
Berreaga 5 48160 DERIO (BIZKAIA)  
Tel.: 94.4541421 Faxa: 94.4540162  
eaderio@mendikoi.net

**MENDIKOI FRAISORO NEKAZARITZA ESKOLA**  
Elbarrena auzoa z/g 20159 ZIZURKIL (GIPUZKOA)  
Tel.: 943.692162/166 Faxa: 943.692 247  
eafraisoro@mendikoi.net

# AURKI EZAZU LAN AUKERARIK ZABALENA NEKAZARITZA ALORREAN

- Erdi Mailako Zikloak**
- Lorazaintzako teknikaria
  - Nekazaritzako ustiapen intentsiboetako teknikaria
  - Nekazaritzako ustiapen estentsiboetako teknikaria
  - Abeltzaintza ustiapenetako teknikaria
- Goi Mailako Zikloak**
- Baliabide natural eta paisajistikoak: kudeaketako eta antolaketako goi-mailako teknikaria
  - Nekazaritza eta abeltzaintza enpresak: kudeaketako eta antolaketako goi-mailako teknikaria

**MENDIKOIn matrikula zaitez!**



**MENDIKOI**

Heziketa, Sustapena, Landa Garapena  
Formación, Promoción, Desarrollo Rural

www.mendikoi.net

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

NEKAZARITZA ETA  
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE  
AGRICULTURA Y PESCA



EUROPAR BATASUNA  
UNION EUROPEA  
Europako Gizarte Fonda  
Fondo Social Europeo

IKASLAN zentru sareen partaidea



## ALMACENES ARRASATE

FAGOR eta ASPES etxetresna elektrikoetan sekulako eskaintzak!  
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



1.460  
X  
550  
X  
590 mm

**HOZKAILUA 1FA255**  
**265 €**



1.850  
X  
598  
X  
590 mm  
Panelagarria

**HOZKAILUA COMBI 2FAC495**  
**418 €**



800 b/min  
5 kgr.

**GARBIGAILUA LA383**  
**295 €**



1.000 b/min  
6 kgr.

**GARBIGAILUA LA4163**  
**345 €**



**LABEA H21410 BN  
BITROZERAMIKA  
VAP1400**

**LABEA eta BITROZERAMIKA**  
**345 €**



**%10eko  
deskontua  
Renove  
Planarekin**

**NO FROST**  
1.850  
X  
600  
X  
600 mm

**HOZKAILUA COMBI F7017**  
**669 €**



**%10eko  
deskontua  
Renove  
Planarekin**

1.850  
X  
600  
X  
600 mm

**HOZKAILUA COMBI F7007D**  
**649 €**



**%10eko  
deskontua  
Renove  
Planarekin**

1.100 b/min  
6 kgr.

**GARBIGAILUA L7110D**  
**529 €**



**AIRE EGOKITUA HOTZA ETA BEROA**

**FAGOR**

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**


Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.  
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.



## Ian etorkizuna gertuago duzu

Bergarako Migel Altuna institutuan, ian etorkizuna gertuago duzu!  
75 urte daramatzagu kalitatezko profesionalak gertu-gertutik hezten.

Ikasle-irakasle arteko harremana lantzen dugu, punta puntako azken teknologietara egokituta gaude eta gainera sekulako erraztasunak ematen dizkizugu zure ikasketak bertako zein atzerriko enpresetan praktikan jartzeko.



### GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazio eta Finantzak
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Mekanizazio Bidezko Produkzioak
- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Plastikoa eta Kautxugintza

### ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanizazioa (goizez eta gauez)
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak
- Plastikoa eta kautxuaren eraldaketa
- Administrazio kudeaketa



943 76 24 91

943 76 38 40

[www.imaltuna.com](http://www.imaltuna.com)

75  
urte  
hezten

Zatoz eta ezagutu gure espezialitate eskaintza zabal!



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

Ibargarai | • 20570 • BERGARA



## Euskal Okela, Eusko Labela duen bakarra



### Soilik Harategi hauetan

**Baimenduak:** Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.

**Artisauak:** Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

**ANTZUOLA**  
GABILONDO ARREGI HARATEGIA  
KALEBARREN, 14

**ARAMAIO**  
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA  
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8

**ARRASATE-MONDRAGON**  
LANDALUZE HARATEGIA  
ITURRIOZ, 7

JOSE MARI SALEGI HARATEGIA  
OLARTE KALEA, 20

AZPILIKUETA HARATEGIA  
DOCTOR BANEZ, 10

AZPILIKUETA HARATEGIA  
ERGUIN, 12

KORTABERRI HARATEGIA  
ANTXO ABARKA, 1

### BERGARA

ANDRES MUJICA HARATEGIA  
DOMINGO IRALA, 5

BIXAIN HARATEGIA  
AZOKA PLAZA PTO. 5-6

ALDAI HARATEGIA  
ESPOLON, 12

### ESKORIATZA

ZUBIA HARATEGIA  
SANTA ANA, 11

### OÑATI

ANTXON HARATEGIA  
SAN LORENZO, 5

TARSICIO HARATEGIA  
PORTU KALEA, 2

GARAY HARATEGIA  
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2

SUPER BM OÑATI-HARATEGIA  
OLAKUA AUZOA, 8

### EUSKO LABELA DUEN BAKARRA

Euskal Herrian dauden haragi mota eta marka desberdinen artean Euskal Okela bereizten da. Ez dago besterik hau bezain zorrotza denik, 90 parametro baino gehiago kontrolatzen baititu.



Berau da bakarra Euskal Herritik kanpo jaiotako animaliak onartzen ez dituen, eta modu naturalean eta jaki nobleekin soilik elikatzea behartzen duena. Hasieratik amaierara prozesu osoa kontrolatuz

Benetakotasun Etiketa

# EZKONTZAK

Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 21a / GOIENKARIAren gehigarri berezia



**Gora  
ezkongaiak!**  
Hemen da ezkontzen sasoia

Javi Pineda, bergarra eta Amparo Martin, arrasatearra.

AZALA: IMANOL SORIANO / ARGAZKIA: JUAN MANUEL BERRUETA



Erdiko kale 14 · ARRASATE · Tel.: 943 79 46 94



# BERRITZE LANENGATIK

**%50 arte**

- Altzariak
- Sofak
- Lanparak
- Edredoiak
- Alfonbrak
- Eta abar

**grupo  
amuebladora  
mondragonesa**

**a eme interiores  
Garibai, 9**

■ Tel.: 943 79 15 03  
■ Faxe: 943 79 14 89



■ DATUAK ETA HAINBAT GORABEHERA

# Guztira, 302 bikote ezkondu ziren iaz Debagoienez

AINTZANE IRIZAR

**A**skotan entzuten dugu gero eta jende gehiago ezkontzen dela. Datuei erreparatzen badiegu, baina, ikusiko dugu hori ez dela horrela; Gipuzkoako datuek esaten digute azkeneko urteotan ez dela askorik aldatu ezkontzen kopurua.

INEren (Espainiako Estatistika Institutua) arabera, 2000. urtean 3.480 bikote ezkondu ziren; 2001ean, 3.431 bikote eta 2002. urtean, berriz, 3.503. Datu horietan sartzen dira iazko ezkontza guztiak: elizan egindako eta ezkontza zibilak.

Debagoieneko datuak ere jaso ditugu, kasu honetan, 2003. urtekoak. Guztira, 302 bikote debagoiendar ezkondu ziren iaz. Horietatik, 87 bikote Oñatin ezkondu ziren; 70 Arrasaten; 62 Bergaran; 29 Leintz Gatzagan; 14 Aretxabaletan; 13 Eskoriatzan eta Antzuolan; hamar Aramaion; eta lau bikote Elgetan.

Datu hauek behar bezala ulertzeko, baina, kontuan hartu behar dugu ezkontza ospatzen den herrian egiten dela erregistroa; hau da, adibidez, Oñatin 87 bikote ezkondu izanak ez du esan nahi denak oñatiarrak direnik. Ezta Leintz Gatzagan ezkontutako 29 bikoteak gatzagarrak direnik ere. Gertatzen dena da bi herri horietan badaudela bi eliza bikote askok aukeratzen dituztenak



GOIENKARIA

Oñati izan zen bikote gehien ezkondu zen herria ibarrean; guztira, 87 bikote ezkondu ziren iaz.

ezkontzeko; Oñatin, Arantzazuko basilika, eta Leintz Gatzagan, berriz, Dorletako eliza. Gainera, ibarretik kanpoko jende asko etortzen da bi eliza horietara ezkontzera.

#### IZATEZKO BIKOTEAK

Gaur egun, ezkondu barik, bada go bikote baten egoera juridikoa formalizatzeko beste aukera bat: izatezko bikote egitea, hain zuzen ere. Antzuolako Udalean izan

ezik, ibarreko gainerako udal guztietan dago EAeko Izatezko Bikoteen Erregistroan izena emateko aukera.

Iazko maiatzean onartu zuen Eusko Legebiltzarrak Izatezko

**Arantzazu eta Dorleta bikote askok aukeratzen dituzte ezkontzeko**

**Ibarreko udal gehienetan egin daiteke izatezko bikote, iazko maiatza ezkerro**

**Izatezko bikoteek ezkontutako eskubide berberak dituzte hainbat arlotan**

Bikoteen Legea. Maiatzaren 7an onartu zuten, eta maiatzaren 23an argitaratu zuten Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Izatezko bikoteen egoera ezin da ezkontutakoekin parekatu, baina badituzte hainbat eskubide; osasun-zerbitzuetan, adibidez, ezkontutako bikotekideek dituzten eskubide berberak dituzte izatezko bikotekideek; EAEk dituen araugintzako eskumenen barruan, ezkontuek duten tratamendu bera dute, zergei dagokienez. Bestalde, testamendu bateratuak egin ahal izango dituzte, ondasunak bata besteari laga... Umeak adoptatzeko eskubidea ere onartzen die lege honek. Lege osoa dago eskuragai, 2003ko maiatzaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

#### HOMOSEXUALEN EGOERA EUROPIAN

Lege honek, batez ere, homosexualen egoerari ematen dio erantzuna; izan ere, hauek ez dute ezkontzeko aukerarik Espainiako Estatuan. Europan, Holanda eta Belgika dira bikote homosexualen eskubidea ematen dieten herrialde bakarrak. Estatuko gay eta lesbianen hainbat elkarte, baina, itzaropentsu daude gobernu aldatetarekin; Rodriguez Zapatero presidente espainiarrak kargua hartu zuenean esan zuen Kode Zibila aldatuko zutela homosexualen bazterkeriarekin amaitzeko. Horrenbestez, badirudi laster alda daitekeela homosexualen egoera, eta ezkontzak ere ugaldtu egin daitezkeela.



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## ■ EMAZTEGAIENDA KO MODA

# Soinekoa, bakoitzaren estiloari egokitutakoa

AINTZANE IRIZAR

**E**dozein ezkontzatan, emaztegaiaren soinekoa izaten da protagonista garrantzitsuenetakoa. Horrekin lotuta, ohiko soinekoek boladan jarraitzen duten arren, modak beste joera batzuk ere markatu ditu, eta aukera oso zabala da.

Bizitzako egunik garrantzitsuenak da askorendako; horregatik, emaztegaiek distiratsu, sekula baino politago, egon nahi izaten dute. Horretan zerikusi handia dauka soinekoak.

Guk Urretxuko Ur dendako Leire Santillan diseinugilearengana jo dugu, aurtengo joeren berri jakiteko asmoz, eta ondo-ko proposamenak egin dizkigu.

**BAKOITZARI BERA**

Hainbat gauza kontuan hartu behar izaten ditu diseinugileak edo saltzaileak, soinekoa aukeratzeko: emaztegaiaren estiloa, azalaren, ilearen eta begien tonua, gorpuzkera... Horrekin guztiorrekin, bakoitzarendako soineko egokia aukeratzeko da.

**VINTAGE ESTILOA, JOSKINTZA BERRIA**

**J**oskintza tradizionalan joinarrituta, jantzien formek askatasuna eta arintasuna lortzen dute. Bolumen estilizatuak, eskote bitxiak eta lepo orijinalak topa ditzakegu. Oihal aberatsak erabiltzen dituzte; enkaje edo parpailak, oihal metalizatuak eta harribitxiak asko erabiltzen dira. Koloreei dagokienez, kolore naturalak dira nagusi: zuri hautsia, te kolorea eta urreztatu suabeak.

**FESTA SOINEKOEN UKITUAREKIN**

**E**maztegai ausartenean eta betiko soinekoak gustuko ez dituztenek festa soinekoen antzerakoak aukeratzeko dituzte. Soineko hauen ezaugarriak izaten dira eskote handiak eta ausartak; gorputzari itsatsitako bolumen estilizatuak, itsaslaminen estilokoak, esaterako; soineko oso luzeak edo oso motzak izaten dira. Hollywoodeko izarren erara janzten dira emaztegaiek.

**SOINEKO ERROMANTIKOAK**

**E**rromantizismoa gustuko dutenendako, beste soineko batzuk daude (argazkian, ezkerrekoa): goxotasuna islatzen dutenak. Hauen ezaugarri nagusia da kortsea eramaten dutela; normalean, bi piezatak jantziak izaten dira. Parpailak (enkajeek) garrantzi handia hartzen dute soineko erromantikoetan; koloreei dagokienez, berriz, zuri hautsia eta urreztatu suabeak dira nagusi.

**IZADI-ZALE ETA 'CHIC'-ENDAKO**

**O**ihalek garrantzi berezia hartzen dute: Organza errustikoak, Organza bordatuak, errafiadunak, kotoizko pikeak, zeta basatiak... erabiltzen dira, batik bat. Bolumen handiak eta txikiak, estuak, denak eramaten dira. Kolore suabe eta naturalak dira nagusi, baina kolore ilunagoko detaileak ere izaten dituzte: granatea, marroia, berdea...

*Gemes*  
estetika

*Inoiz baino  
distiratsuago  
egongo zara*

Ilargi plaza 1 · Aretxabaleta · Tel.: 943 79 99 18





■ SENARGAIEN DAKO MODA

# Protagonismoa hartzen hasiak dira senargaiak ere

AINTZANE IRIZAR

**E**gia da orain arte beti egon dela bigarren mailan senargaiak. Baina egia da, era berean, geroago eta protagonismo handiagoa hartzen dabilela. Senargaiarendako ere egun berezia da, eta sekula baino dotoreago egon nahi izaten du.

Emaztegaia izaten da, normalean, ezkontzako protagonista nagusia. Gustatu edo ez, horrelaxe izaten da. Komentario gehienak ere emaztegaia gainera izaten dira.

Senargaiak, baina, pixkanaka-pixkanaka euren tokia hartzen dihardute; gainera, euren ezkontza eguna ere bada, eta euren garrantzia ere egun garrantzitsua da. Horregatik, senargaiak ere sekula baino dotoreago egon nahi du.

Horrela, senargaiendako modari geroago eta garrantzi handiagoa ematen zaio; merkaturuan dagoen aukera geroago eta zabalagoa da: ohiko trajeetatik hasi eta zeremoniako traje moderno eta ausartetaraino.



## ZEREMONIA ESTILOA

**P**roposamen honekin, ukitu zeremoniatsua hartzen du senargaiak. Trajea, gure artean ohikoa den moduan, iluna: beltza edo grisa. Txaketaren azpikoek, berriz, kolore argiagoa izan behar dute, kontrastea egiteko. Alkandora zuria dauka senargai honek, eta txalekoa eta gorbata, berriz, gris zilarrezatuak, ukitu zeremoniatsua ematen diotenak.



## NAPOLEONEN GARAIRA ITZULTZEA

**X**IX. mendeko janzkera gogorazten digu senargai honen trajeak. Emaztegaia soinekoekin gertatzen den moduan, senargai jantzietan ere boladan daude aurreko mendeetako janzkeren tankera hartzen duten trajeak. Napoleonen janzkera irudikatzen dute, batez ere, lepoak eta paparrek. Lebita erako txaketa darama; oihala mila arraiaduna da.



## FRAK ERAKO TRAJEA, BESTE AUKERA BAT

**G**ure artean, egia esan, ez da horrelako senargai askorik ikusten. Dena dela, betiko estiloa da, oso tradizionala ezkontzetan. Adituen esanetan, batez ere, gauzez edo arratsaldean egiten diren ezkontzetarako da egokia fraka. Jantzi honen ezaugarri nagusienetakoa da tximeleta (pajarita) daukala; esan bezala, ez da batere ohikoa Euskal Herriko ezkontzetan.



## DOTORE ETA MODERNO, BAINA SINPLE

**B**etiko trajeetan oinarrituta, baina ukitu modernoarekin. Horrelakoxe trajeak aukeratzeko dituzte gazte askok. Normalean, traje iluna eramaten dute senargaiak; kolore ilun horri bizitasun apur bat emateko, alkandora zuria janztea da egokiena. Trajeari ukitu modernoa emateko, berriz, hainbat detaile: gorbata edo fular handiak, txaketaren paparra ere handia...



Solarium eta Estetika Zentroa

AEB elkarteko kide  
(Espainiako Brontzeztatze Elkarte)

**LILURAGARRI EGON ZAITEZEN...**

Ferrerias kalea 28, behea

ARRASATE

Tel.: 943 79 64 57

Emaztegaientzat aurrekontu bereziak ditugu

Solariuma:

Saio bat: 7 euro

10 saioko bonua: 44 euro

20 saioko bonua: 74,5 euro

30 saioko bonua: 92,5 euro

Gainera, zerbitzu ugari eskaintzen dizkizugu:

depilazioa, garbiketak, tratamenduak, manikurak, gorputzeko tratamenduak...

Etorri eta galdetu inolako konpromiso barik



943 771255

MARIA JESUS  
ARGAZKILARIA

**EZKONTZAK %25eko deskontua**

ARETXABALETA HERRIKO PLAZA 10

[www.mjargazki.com](http://www.mjargazki.com)



## ■ ARGAZKI ALBUMA

## Argazki albuma, beti gogora

AINTZANE IRIZAR

**H**ain egun gogoangarria izanda, argazkiek beti izan dute garrantzi berezia ezkontza egunetan. Gaur egun, baina, argazki albumaz gain, bideoa ere egiten du bikote askok. Dena dela, argazki albumak ezinbestekoa izaten jarraitzen du.

Oro har, ezkontzetan ohikoak diren argazkiak nahi izaten dituzte bikote gehienek. Pixkanaka-pixkanaka, baina, gero eta gehiago dira argazki ezberdinak, orijinalak, dibertigarriak, nahi izaten dituztenak ere.

Boladan dago, esaterako, ohiko argazkiez gain, hondartzan, grafitien aurrean, erakusleihoei begira edo bestelako hainbat egoeratan ateratzea ezkontzako argazkiak. Horren adibide dira ondoan ikus ditzakegun argazkietako batzuk. Xabierrek eta Soniak, esaterako, Landako urtegiaren atera zituzten hainbat argazki, ezkondu baino egun batzuk lehenago. Javik eta Amparok, berriz, zirkua Arrasaten zegoela aprobetxatuta, hantxe egin zuten argazki saioa.

Gure ibarrean argazkilari aukera zabala dagoen arren, garrantzitsua izaten da garaiz hastea argazkilari bila; izan ere, baliteke gure ezkontza egunean libre ez egotea.



JUAN MANUEL BERRUETA

**XABIER ETA SONIA / BERGARA**

**S**onia Sanchez bergararra eta Xabier Zangitu osintxuerra iazko irailaren 20an ezkondu ziren. Ezkontzetan ohikoa den argazki albuma egin zuten Soniak eta Xabierrek, baina, ezkontzarako, bestelako argazkiak ere atera zituzten. Argazkilariak hala proposatuta, argazki ezberdinak, bereziak, orijinalak egin nahi izan zituzten bikote honek. Horretarako, Landara joan ziren, eta hango urtegiaren atera zuten argazki saio bat. Eguraldi polita egin zien, eta uretan jolasean zebiltzala egin zizkioten hainbat argazki bikoteari.



JUAN MANUEL BERRUETA

**JAVI ETA AMPARO / BERGARA**

**I**azko urrian ezkondu ziren Amparo Martin arrasatearra eta Javi Pineda bergararra. Erguin auzoko elizan ezkondu ziren. Amparok eta Javik argi zeukaten ez zituztela ezkontzetako argazki tipikoak nahi; zerbait orijinala, ezberdina, nahi zuten ezkontza eguna gogoratzeke. Horrela, Arrasaten zirkua zegoela aprobetxatuta, hantxe atera zituzten ezkontzako hainbat argazki. Grafitiak eginda dauden horma baten ondoan ere egin zuten argazki saio bat. Argazki serioago batzuk ere atera zituzten, baina gutxi batzuk, besterik ez.

Baster-alde  
jatetxea

Zure ezkontza eguna ospatzeko  
leku eta giro paregabea dauzkagu.

150 lagunendako  
jangela eta aparkalekua



Terraza berria  
haur parkearekin



Karta eta menua  
ditugu aukeran.

Galartza auzoa • ARETXABAILETA  
Tel.: 943 79 24 58  
Faxa: 943 79 85 26



*Egun berezia da,  
zeure burua eder ikusiko duzu,  
eta ikusiko dute.*

Espezialistak gorputz eta aurpegi estetikan

Orain, laser bidezko depilazioa ere eskaintzen dizugu.  
Konfiantza osoarekin!



**AMAGARA**  
ESTETIKA ZENTRUA

Erdiko kale 54 behea  
Tel.: 943 79 09 09  
20500 Arrasate

# tzeko moduko egun baterako



MARIA JESUS ARGAZKIAK

## ANA ETA ALBERTO / ARRASATE

**A**na Alonso arrasatearra eta Alberto Perez aretxabaletarra Apirilaren 24an ezkondu ziren, Arrasateko udaletxean. Argazkiak, berriz, Otalora jauregiaren ondoan atera zituzten, Aretxabaletan, Urkuluko urtegitik gertu. Anak eta Albertok ezkontzako ohiko albuma egin zuten, ez zuten aurreko bi bikoteen erako argazki ezberdinik atera. Eztei-bidaian, berriz, Costa Rican egon direla kontatu digute. Etorri berriak dira bidaiatik.



MARIA JESUS ARGAZKIAK

## JOSE LUIS ETA IZASKUN / ARRASATE


**A**pirilaren 24an ezkondu ziren Jose Luis Hernando eta Izaskun Gutierrez arrasatearrak. Aretxabaletako udaletxean ezkondu eta Otalora jauregiaren ondoan atera zituzten argazkiak. Ezkontza xumea egin zutela kontatu digute; familiarrean ospatu zuten ezkontza, gonbidatu gutxirekin. Oso ondo pasatu zuten eguna, eta eguraldiak ere lagundu zien. Orain dela gutxi itzuli dira eztei-bidaiatik: Espainian egon dira, Levante aldean.



JUAN MANUEL BERRUETA

## DEBORAH ETA XABIER / ARETXABALETA

**D**eborah Axpe arrasatearra eta Xabier Arenaza aretxabaletarra apirilaren 3an ezkondu ziren, Aretxabaletako Goroeta auzoan, Urkulu urtegiaren ondoan, hain justu. Ezkontzako argazkiak, berriz, Arrasateko udaletxean eta Otalora jauregian atera zituzten. Eztei-bidaiarik ez dute oraindik egin, baina ez pentsa asmorik ez dutenik; bi hilabete bidaia antolatzen dihardute, uztaileko eta abuzturako, hain zuzen ere.



Juan Manuel Berrueta

ARGAZKILARIA

Iturriotz Kalea 24 • Tel.: 943 79 19 71 • Mugikorra: 658 75 58 18 • ARRASATE  
E-posta: [juanma.bv@euskalnet.net](mailto:juanma.bv@euskalnet.net) • Webgunea: [www.photo.euskalnet.net](http://www.photo.euskalnet.net)



Aukerarik onena.

**ETXEBERRIA**

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA-OPARIAK

Bidekurutzeta 16. BERGARA. Tel.: 943 76 23 94 - 76 12 65

## ■ GONBIDATUAK

# Soinekoak eta trajeak dira nagusi gonbidatuen artean

AINTZANE IRIZAR

**E**zkontza baterako gonbidapena jaso eta gonbidatuen arduretako bat izaten da zer jantzi. Ezkongaien ez ezik, gonbidatuek ere dotoredore joan nahi izaten dute ezkontzara. Gero eta gehiago gastatzen da arropetan eta osagarrietan.

Ezkongaien kasuan gertatzen den antzera, gonbidatuen artean ere, mutilek edo gizonezkoek errazagoa dute arropa aukeratzeko. Gaur egun berriro jarri da boladan trajea janztea ezkontzara joateko, nahiz eta denek ez duten aukera hori egiten. Bolada hori lotuta dago ezkontzen handitasunarekin; hau da, berriro daude boladan ezkontza jendetsuak eta dotoreak. Gehienek, gainera,

gorbata eta guzti eramaten dute trajea. Mutil gazteenak, hala ere, janzkera horri ukitu moderno ematen saiatzen dira; horrela, kolore biziko alkandorekin edo alkandora elastikoarekin, gorbata berezi batekin, gorbatarik ez janztearekin edo kanpai formadun prakekin, besteak beste, lor daiteke ukitu moderno hori.

Hala ere, gero eta gehiago dira, gazteen artean, batez ere, praka normal batzuk eta alkandora berezi bat aukeratzen dutenak ezkontzarako; alkandora hori, noski, moderno izaten da, elastiko samarra, gorputzaren forma hartzen duena eta ukitu modernoarekin. Orain, gainera, uda datorrela kontuan hartuta, trajearen txaketa gehiegizkoa da, askoren iritzi.

**EMAKUMEEN ARTEAN, DENETIK**

Emakumeen artean boladan zer dagoen esatea ez da hain erraza.



Gonbidatuek ere arreta berezia jartzen diote janzkerari.

GOIENKARIA



# IKER

**SUKALDEAK:** Udala Plaza z/g, Arrasate / 943 79 00 43 **BAINUAK:** Zarugalde 52, Arrasate / 943 79 99 42

**ETA ORAIN OÑATIN ERE BAI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48**

**FAGOR** 

## Gaur egun, berriro dago boladan trajea gizonezkoen artean

Ezkontzarako jantziak aukeratzeara ez da hain erraza izaten, aukera hain da zabala. Soinekoa, gona eta blusa, trajea...

Ezkontzak berak era berezian jantzita joatea eskatzen duen arren, garrantzitsuena da norberaren estiloaren arabera arropa erostea.

Hemendik aurrera, udaberrian eta uda partean, soinekoak nagusitzen dira; soinekoen artean, baina, estilo guztietakoak aurki ditzakegu. Kontua da norberari ondoen egokitzen zaiona aukeratzeara: badaude soineko sinpleak, diskretoak, baina, era berean, dotoreak direnak; festarako soinekoak...

Gonak ere boladan daude; gainera, beste aukera bat ematen dute; izan ere, gona sinple bati gaineko blusa, kamiseta edo alkandora berezi bat jarri ahal diogu.

Emakume helduen artean, berriz, ohikoenak dira trajeak, trajeak gonarekin, bereziki. Hori beti dago boladan; aurten, baina, kolore biziak boladan dauden honetan, fuchsia, pistatxoa eta era horretako koloredun trajeak ikusten dira, batez ere.



### PRAKAK, SOINEKOA, GONA...

**E**makume gazteen artean, zaila da esatea zer dagoen boladan. Trajea prakekin aukeratzen dute askok; edo praka normal batzuk kamiseta edo alkandora berezi batekin (harribitxiekin apaindua edo molde berezi bat duena). Maiatzetik aurrera, berriz, neska askok soinekoa aukeratzen dute, edo gona. Arropa ponpoxoak eramaten dira, distirekin, forma bitxiak eta molde berezia dutenak.



### TRAJE MODERNOAK NAGUSI

**M**util gazteen artean, aldiz, trajeak daude boladan berriz ere. Hori bai, ukitu moderno nahi izaten dute: txaketa entailatua edo elastikoa, kanpai formadun prakak, alkandora elastikoak... Orokorrean, kolore iluneko trajeak daude boladan; iluntasun horri bizitasun apur bat emateko, berriz, kolore biziko alkandorak. Gorbatarik, ez; gaur egun, dagoeneko, jende gaztearen artean ez da gorbatarik eramaten.



### HELDUAK, TRAJEAREKIN

**G**izonezko helduen moda ez da askorik aldatu azkeneko urteotan. Tradizionalenak gizonezko helduak dira, eta trajea gorbata eta guzti aukeratzen dute gehienek ezkontzetarako. Gizonezko helduen kasuan ere, trajea, oro har, kolore ilunekoak izaten da, eta alkandora, berriz, kolore argikoa. Gorbatari dagokionez, berriz, gero eta gehiago ausartzen dira kolore biziko gorbatak jantzen.



### TRAJEA, GONAREKIN

**B**atez ere emakume helduek trajea gonarekin jantzen dute ezkontzetarako. Aurtengo denboraldian kolore biziak daude boladan: fuchsia, pistatxoa... Baina, kolore argiak ere (beixa, artilekolorekoa...) oso dotoreak dira. Gonbidatuen kasuan, gonak motzak izan behar du, eta trajeak, dotorea, baina xumea. Osagarriek garrantzi handia dute: belarritakoak, fularrak, orrazkerak...



*Momentu eder guztietan*



Maalako errabala 5 • ARRASATE • 943 79 19 25

Kale Barria 18 • OÑATI • 943 71 60 74

## ■ EZKONTZA BEREZIAK

# Denak ez dira elizan, zuriz eta gorbatarekin ezkontzen

AINTZANE IRIZAR

**E**maztegiaia zuriz, senargaia trajearekin, elizan eta gonbidatu askorekin; horrelakoak izaten dira ohiko ezkontzak. Badago, baina, beselako ezkontzak nahiago izaten dituen jendea, beste era batera ezkondu eta ezkontza ospatzen duena.

Ezkontza jendetsuak, ponpoxoak eta betikoak daude boladan gaur egun. Emaztegiaren soinekoa, modernoagoa edo klasi-koagoa, baina zurixka, dotorea eta ponpoxoa. Senargaia ere dotoredore, trajearekin. Gehientsuenak elizan ezkontzen dira, eta bazkariak sekula baino jendetsuagoak izaten dira.

Badaude, baina, betiko ezkontzak gustatu ez, eta beste era bate-

ra ezkontzea erabakitzen dutenak, eta ezkontza beste era batera ospatzen dutenak. Horixe da erreportaje honetan batu ditugun debagoiendar batzuen kasua: Rosa Lasagabaster eta Asier Lasa eskoriatzarrek mendia ibilaldi batekin ospatu zuten ezkontza; Iñigo Gallastegi bergararra, berriz, San Frantziskon (AEBak) ezkondu zen, *cowboy* jantzita. Jon Ander Loidi aretxabaletarra eta Ainhoa Larrañaga bergararra mendian ezkondu ziren, Aloñan, zuhaitz berezi baten ondoan.

Igor Irazabal elgetarrak eta Amaia Zubizarreta ondarrutar- rarak, berriz, ohiko ezkontza antolatu zuten arren, koadrilakoek egin zuten berezi ezkontza. Izan ere, mozorrotuta joan ziren ezkontza ospakizunera.

Beste aukera bat ere badago: ezkontzeko dokumentuak sinatu eta kito. Horixe egin zuten Fati-



Aratusteak zirela eta, mozorrotuta joan zen lagunaren ezkontzara Elgetako koadrila hau.

GOIENKARIA



Kupoi hau aurkeztuz gero  
**%10eko deskontua** ezkontza  
gonbidapen eta oparietan  
**Ekainaren 23ra arte!**



## Paregabeko egunaren oroigarria



ma Arantzabalek eta Mikel Irizarrek eta Joxe Arantzabalek eta Bego Larrañagak. Leintz Gatzagan ezkondu ziren laurak; hara joan, dokumentuak sinatu, aldameneko tabernan gazta mokadutxo bat hartu, ardo botila batekin, eta etxera.

#### MENDIZALEAK, MENDIAN

Ainhoa Larrañaga eta Jon Ander Loidi oso mendizaleak dira; horixe izan zen orain dela bi urte mendian ezkontzeko arrazoietako bat. Beste arrazoia izan zen Pello Zabalaren oso lagunak direla; horrelaxe azaldu digu Ainhoak: "Pello Zabalarekin harreman handia dugu. Behin, Aloñara joan ginen elkarrekin eta oso zuhaitz berezia erakutsi zidan: gorostia eta elorria bat eginda dauden zuhaitz bat, eta esan zidan ilusio handia egingo liokeela gu han ezkontzeak". Horrelaxe, ezkontza berezi horixe egitea erabaki zuten eta Pellok ezkondu zituen. Artxabaletatik Aloñara mendiz mendi joan zen bikotea. Gonbidatuak, berriz, ahal zuten tokiraino autoz eta gero oinez.

Rosa eta Asier ere mendizaleak dira. Hala, bikote honek ere mendizaletasunarekin lotu zuen euren ezkontzaren ospakizuna. Iazko abenduan ezkondu ziren —ezkontza zibila—, eta urtarrilean ospatu zuten. Anboto azpia aukeratu zuten bazkaria egiteko, Aspe auzoan. Mendizaleak izanik, Asperaino mendiz mendi joan zen bikotea. Eta, poliki-poliki, mendi martxa antolatzeko



GOIENKARIA

Ainhoa eta Jon Ander Aloñan ezkondu ziren orain dela bi urte, apirilean.

ideiak indarra hartu zuen, eta 18 bat lagun joan ziren oinez.

#### EZKONTZA ARATUSTEETAN

Igor Irazabalen koadrilakoek, ezkontza Aratusteetan zela jakin zutenean, argi izan zuten ez zire-

la mozarrotu gabe geratuko. Ez zitzaien askorik kostatzen, gainera, mozarroa aukeratzea: ondo prestatuta joango ziren, *drag-queen* mozarrotuta, hain justu. Horrelaxe jantzita joan ziren ezkontzara, eta arrakasta itzela izan

**Pello Zabalak ezkondu zituen Jon Ander eta Ainhoa, Aloña mendian**

**Elgetar koadrila bat 'drag-queen' mozarrotuta joan zen lagun baten ezkontzara**



GOIENKARIA

Iñigo eta Carmen, San Frantziskoko udaletxean ezkondu ziren, 2000n.

zuten. Gainerako gonbidatuei eta bikoteari asko gustatu zitzairen koadrila honen burutazioa.

**SAN FRANTZISKON, EZKONTZA BEREZIA** Iñigo Gallastegi bergararra San Frantziskon ezkondu zen, hantxe

bizi zen eta. Iñigori asko gustatzen zaio *country* musika, eta *cowboy* jantzita joaten zen kontzertuetara. Hala, ezkontzea erabaki zutenean, horrelaxe jantzea erabaki zuen. Carmen da emaztea, El Salvadorkoa.

**Ezkontza ospatzeko, mendi martxa egin zuten Rosak, Asierrek eta euren lagunek**

**Iñigo Gallastegi San Frantziskoko udaletxean ezkondu zen, 'cowboy' jantzita**



HOTELA-JATETXEA

San Juan auzoa 33  
AXPE-ATXONDO  
Tel.: 94 682 08 33  
Faxa: 94 682 11 36  
www.mendigoikoa.com

## ■ EZTEI-BIDAIAK

# Bidaian, kontinente berriak ezagutzera

AINTZANE IRIZAR


**E**ztei-bidaia egitea aspaldiko ohitura da; bidaiarako garai baten aukeratzen ziren tokiak eta gaur egun aukeratzen direnak, baina, ezberdinak dira. Ibarrean orain dela gutxi ezkondu diren hainbat bikoteren bidaiak ezagutu nahi izan ditugu.

Urtero egin ezin dituen bidaiak aukeratzen ditu jendeak ezteibidaiarako; izan ere, ezkontzea bera zerbait berezia den moduan, bidaia ere berezia da ezkonberriendako. Horrela, askotariko herrialdeak eta toki bereziak aukeratzen dituzte.

Gure ibarreko ezkonberriek zer-nolako bidaiak egiten dituz-

ten jakin nahi izan dugu, eta hementxe jaso ditugu horietako batzuk. Gehienak Europatik kanpora joaten dira, kontinente berriak ezagutzera. Borja Moia eta Amaia Bikuña oñatiarrak Argentinan egon ziren; Olaia Etxenagusia eta Asier Lizarriritri aretxabaletarrak Zeelanda Berrian; Mikel Jauregi eta Mirari Beitia antzuolarrek Tunisiara egin zuten bidaia; Leire Garmendia eta Jose Ramon Iturbe Dominikar Errepublikan egon ziren eta Eider Oruna eta Javi Cobos arrasatearrak, berriz, Mexikon.

Gustu eta prezio guztietarako aukerak daude. Dena dela, aipatzekoa da bidaia agentzia gehienek izaten dituztela eskaintzak ezkonberriendako. *Pack* bereziak osatzen dituzte ezteibidaiarako.



## BORJA ETA AMAIA, ARGENTINAN

**M**artxoan egin zuten ezteibidaia Borja eta Amaia oñatiarrek. Buenos Airesen bi egun egin ondoren, Patagonia aldera abiatu ziren. El Calafaten Perito Moreno glaziarra ikusi zuten, baita Upsala ere, esaten dutenez, munduko handiena. Txilen ere egon zen bikotea, Torres del Paine Parke Nazionalan. Gero, Tierra de Fuegoa joan ziren, Ushuaia, hain zuzen ere. Azkenik, Iguazu ur-jauziak bisitatu zituzten. Hala, itzultzeko gogoz geratu direla esan digute.



## OLAIA ETA ASIER, ZEELADA BERRIAN

**Z**eelanda Berrira joan ziren Olaia eta Asier aretxabaletarrak. 24 egun egin zituzten hantxe; egun gehienak South Ireland-en egin zituzten, hegoaldeko uhartean. Autokarabana errentan hartu eta uharte osoa ikusi zuten. Kontatu digute harrigarria dela hango pasaia: glaziarrek, kostaldea, baso tropikalak... North Ireland-en ere egon ziren; uharte hura laua eta bolkanikoa da. Merezki duela esan digute, batez ere, naturak eskaintzen dituen paisaiengatik.



*leku eta egun ahaztezinak*




**Etxe  
Aundi**

Jatetxea-Hotela\*\*

Torre Auzo, 9  
OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 19 56

120 eta 250  
gonbidatuendako  
jangelak ditugu.






#### EIDER ETA JAVI, MEXIKON

**E**ider eta Javi mondragoetarrek apirilean egin zuten eztei-bidaia, Mexikora; Maien Erribera deritzon inguruan, hain zuzen ere, pasatu zituzten bi aste. Tulum hirian egon ziren, maiena izandako eskualde horretako hiri garrantzitsuenetako baten. Chichen-Itzako eta Tulumeko maien hondakinak ikusi zituzten, besteak beste. Zenoteak ere bisitatu zituzten: lur azpiko errekek daude Tulum inguruan, eta tarteka, azaleratu egiten dira errekek; bainu bat baino gehiago hartu zuten zenote horietan. Ur azpian snorkel egiteko aukera ere izan zuten; arrezife koralak ikusi zituzten, betaurrekoak eta arnasa hartzeko tutua aldean hartuta. Baina atsedean hartzeko denbora ere hartu zuten, hango hondartza zoragarrietan.

#### JOSE RAMON ETA LEIRE, DOMINIKAR ERREPUBLIKAN

**K**aribe aldean ibili ziren Leire eta Jose Ramon bergararrak eztei-bidaian. Astebete Dominikar Errepublikako Punta Cana egin zuten. Beste astebete, berriz, itsas bidaia baten; hainbat uharte ikusi zituzten itsas bidaian: Martinica, Barbados, Grenada eta San Martin, hain zuzen ere. Oso bidaia ederra eta lasaia egin zuten. Itsas bidaia egiteko gogoz zeudela kontatu digute, batez ere zerbait ezberdina egiteagatik eta berriro egiteko aukera gutxi izango dutelako.



#### MIKEL ETA MIRARI, TUNISIAN

**M**ikel eta Mirari antzuolarrak Miazko uztailean ezkondu ziren. Lagun batzuek opari polita egin zioten bikoteari: Arnedilloko bainuetxean asteburua. Ondoren, Tunisiara joan ziren. Lehenengo, hiru egunean zehar, Tunisiako toki interesgarrienak bisitatu zituzten: mendian herri nomadek lagatako auzuneak eta eraikinak, merkatuak, basamortua; hegoaldean ibili ziren. Beste lau egun hotel baten pasatu zituzten, lasai-lasai, atsedean hartzen.



## Ezkontza-erreportajeak 600 eurotan

Bataio eta jaunartze-erreportajeak ere egiten dira

Herriko plaza 5 • ARETXABALETA / Birjinape behea 1 • EIBAR



## GURE AMETSA JATETXEA

- Ezkontzatarako areto handi eta erosoak
- Aparkaleku pribatua handia
- Aperitiboendako terraza
- Sukaldaritza zaindu eta paregabea
- Aurrekontu guztietarako menuak

Leintz Gatzaga · Tel./Faxa: 943 71 49 52

## ■ JATETXEAK

# Bazkalordua, ezkontzako momentu goxoenetakoa

AINTZANE IRIZAR

**B**ikoteak ezkontzea erabakitzen duenean, **egin beharreko lehenengo gauza izaten da jatetxean tokia hartzea; izan ere, ez da erraza izaten norberak nahi duen egunean tokia izatea. Hori bezain garrantzitsua da gero menu egokia aukeratzea.**

Askotan, ezkontzako eguna jatetxearen arabera jartzen da. Bikoteak egin behar izaten duen lehenengo gauza izaten da jatetxea aukeratu eta nahi duen egunean tokia dagoela ziurtatzea; eta hori ez da batere erraza izaten. Kontuan hartu behar dugu bikote gehienak ezkontzen direla urteko sasoi jakin batzuetan, udaberrian, batez ere. Gainera, kasu gehienetan, 100 gonbidatutik gora izaten dira, eta, normalean, bazkaria izaten da. Horrela, aukerak asko mugatzen dira.

**MENUA AUKERATZEA**

Behin tokia hartuta, menua aukeratzea ere oso garrantzitsua da. Jatetxe askok hainbat menu izaten

dituzte aukeran; dena dela, menuok bikotearen nahien arabera egokitu ahal izaten dira. Aste batzuk lehenago, bikoteari eta euren gurasoei menua dastatzeko aukera ematen diete jate-txe batzuek.

Ezkontzetako menua ez da nolana hikoia izaten; guk hiru jate-xeri eskatu diegu ezkontza baterako menua proposatzea, eta hementxe jaso ditugu proposamenok.

**BAZKALOSTEAN, DANTZALDIA**

Bazkalostean, berriz, ohikoa izaten da dantzaldia. Horretarako, musika taldeak edo gaur egun boladan dauden disko jartzaileak kontratatzen dituzte ezkongaiak. Hortaz, nahikoa jan eta edan ondoren, gorputza mugitzera.

Dantzaldiari dagokionez, garrantzitsua da bikoteak kontuan hartzea jatetxeak horretarako eskaintzen duen aukera, eta baita jantokiaren ordutegia ere. Ohikoena izaten da, bazkarietan, 20:00ak aldera arte izatea dantzaldia. Dena dela, gero eta gehiago dira jantokia 22:00ak aldera arte lagatzen duten jatetxeak ere. Horietako batzuetan, kobratu egiten dituzte ordu horiek.

**Baster-Alde**

Cava koktela eta aperitiboa aterpean.

• Ezkur-urdaiazpiko eta solomo iberikoak.

• Landetako foie.

• Abakando entsalada.

• Itsas kabra pastela saltsa arrosarekin.

• Erromes-maskor betea, gainerreta.

• Ganbak plantxan.

• Almejak marinela erara.

• Limoi-sorbetea cavarekin.

• Legatza itsaskiz beteta, saltsa amerikarrarekin.

• Solomilloa plantxan, hornitua.

• Ezkontza-tarta etxean egindako izozkiarekin.

**90 euro****Mendi-Goikoa**

Ongietorri-kopa.

• Hegaluze-mendrezka entsalada tipula melatuarekin.

• Berdura-krema.

• Fetucini berdea azpizun iberikoarekin, perretxikoekin eta Aurora saltsarekin.

• Piper beteak, zerbaren orrimami beteak eta txangurro kanutilloak.

• Legatza txakolin erara almejekin eta langostinoekin.

• Entrekota pikillo piperrekin.

• Sorbetea.

• Postre dastatzea izozkiarekin

**116 euro****Etxe-Aundi**

Urdaiazpiko iberikoa.

• Txipiroi entsalada epela perretxikoekin.

• Onddoen tartaleta.

• Krepeak txangurroz beteta.

• Erromes-maskorra, gainerreta.

• Langostinoak plantxan.

• Zapo labean.

• Maracuya sorbetea.

• Solomilloa plantxan, hornitua.

• Ezkontza-tarta gazta izozkiarekin eta mugurdi saltsarekin.

**77 euro**

**Aurpegirako  
eta  
gorputzerako  
laser bidezko depilazioan  
espezialistak gara**

*Maiatzaren 21etik 28ra, %30eko deskontua  
izterondoan eginiko lehen saioan.*

*Aukera ezin hobea.  
Diagnostikoa doan.*



**LILURA**  
EDERTZE INSTITUTUA

Bidekurutzeta 7, 1a  
Tel.: 943 76 31 71  
20570 BERGARA



*Senargaiak, Aitabitxiak eta Senitartekoak.*

**CORTE BLANCO**

Triunfo 3 · DONOSTIA · tel.: 943 46 40 91

*Esklusiban gure bezeroentzat*

# Jean Louis David

## TRADITION

Ibargarai 43 • 20570 BERGARA • Tel. 943 76 22 48

## DIFFUSION

### QUICK SERVICE

Magdalena 16 • 01008 GASTEIZ • Tel. 945 13 47 26

## DIFFUSION

Garbera ztro. kom., Garbera 1- 23 aretoa  
20017 DONOSTIA • Tel. 943 39 45 86


## DIFFUSION

Urbil ztro. kom., Asteasuain polig. (Txikiardi) - B7 aret.  
20170 USURBIL • Tel. 943 36 08 17

## DIFFUSION

Lakua ztro. kom., Wellington Dukea 6A - 05 aretoa  
01010 GASTEIZ • Tel. 945 17 91 50

L'ORÉAL  
produktuekin  
kolorazioa  
eta permanentea.  
**GURE ARETOETAN  
ESKLUSIBOTASUN  
OSOZ**



## GURE FIDELTASUN TXARTELAK

**FIDELTASUN TXARTELA**

**Jean Louis David**

Zoriontasuna zoragarria da:  
zenbat eta gehiago eskaini,  
orduak eta gehiago jasotzen da.

Blaise Pascal

### FIDELTASUN TXARTELA

Astean behin: -%20  
Bi hilean behin: -10%

### GAZTE TXARTELA

20 urte baino gazteagoendako  
eta ikasleendako: -%20

**GAZTE TXARTELA**

**Jean Louis David**

Gazteriaren sukarrak eusten die  
munduari eta tenperatura normalari.

Georges Bernanos.

**GARAI URDINA**

**Jean Louis David**

Zerbait irabazten den bitarte-  
an, ez da ezer ere galtzen.

Miguel de Cervantes

### GARAI URDINA

Prezio hoberekin  
gure zerbitzuetan.

## EZKONGAIK 2004 BEREZIA

## Gora ezkongaiak... ... eta Eroski Bidaiak-en opari zoragarriak!

*A*urten, zuen Eztei-Bidaiaren erreserba Eroski Bidaiak-en egiterakoan, preziorik onenak baino zerbait gehiago irabaziko duzue. Lehen ezkontza-oparia ere eskainiko baitizuegu, hemen ondoko sei hauen artetik aukera dezakezuen...

**Pentsatu al duzue zein den zuen eztei-zerrendatik ezabatu nahi duzuen oparia?**



**Topa 4 maleta  
biguneko sorta zoragarri  
baten alde!**

2.000 €-rainoko erreserba egitean.



**Topa 20 piezatakox baxera  
eder eta portzelanazko  
15 piezatakox kafe-joko  
baten alde!**

2.001 € eta 2.500 € arteko erreserba egitean.



**Topa luxuzko estutxe eta guzti  
aurkeztutako altzairu herdoilgai-  
tzezko 84 piezatakox mahai-  
tresneria bikain baten alde!**

2.501 € eta 5.000 € arteko erreserba egitean.



**Topa maleta  
gogorreko sorta  
liluragarri baten alde!**

5.000 €-tik gorako erreserba egitean.

**Topa zuek aukeratutako  
bidaiaren %5 eko  
deskontuaren alde!**

**Topa Consumer Txartelarekin,  
interesik gabeko 6 hilabeteko  
finantzaketaren alde!**



**Argibide gehiago jasotzeko, zatozte  
Eroski Bidaiak-en zuen ohiko Bulegora.**

**MAYTE** LORADENDA

**Azken joerak**

**Emaztegaiaren erramuak**

**Autoa apainduta**

**Ezkontza opariak**

**Eliza apainduta**

Zure ezkontza egunerako lore sorta geurean enkargatuz gero, zozketa baten hartuko duzu parte txartel hau aurkeztuta.

**LORE-SORTA DOAN LOR DEZAKEZU!!!**

**ETA BESTE HAINBAT OPARI ERE BAI.**

LORAK ETXERA ERAMANGO DIZKIZUGU.

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera 09:30-13:30 16:30-20:30 • Larunbatetan: 09:30-15:00 • Igande eta jaiegunetan: 10:00-13:30

Otalora Lizentziaduna 18 • Tel.: 943 77 14 65 • ARRASATE

Lagunak ezkontzen direla...  
 Gurasoek 25 urte ezkontuta bete dituztela...  
 Aitona-amonek 50 urte ezkontuta bete dituztela...



## Zorionak emateko modu politena: Goienkaria

Ekar edo bidal ezazu argazkia ondorengo egoitzetara:  
 ARRASATE. Otalora Lizentziaduna 31  
 BERGARA. Barrenkale 33 (Irizar jauregia)  
 ARETXABALETA. Durana 11  
 goienkaria@goiena.com

**Goienkaria**

# Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 21a

Kultura  
eta  
aisialdia



Maiatzaren  
21etik 28ra



## AFALOSTERA KANTU ABESTIAK

Lagun artean eta kantu afarietan abesteko moduko euskal kantu ezagunak bildu ditu bergarako jardun elkarteak liburuxka baten. guztien eskura jarri nahi izan dute liburuxka, lagun arteko kantaldiak sustatzeko asmoarekin/14

ERDI AROKO  
I. azoka  
ARRASATE 2004  
Maiatzak  
22-23

Murgil  
zaitez  
ERDI  
AROKAN!

Egun osoan kale animazioa,  
artisautzak, postuak, musika,  
suge-sorgintzailea,  
zetreria...

Erdi Aroko  
fantasiaz beteriko  
ikuskitun paregabea!

Laguntzailea: 

Antolatzailea:  ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN  
Kultura Saila

## KANTUAK/ EUSKAL KANTUEN LIBURUXKA



AITOR LIZARRALDE

Erramu Zapatu bezperako afarian giro ederra sortu zen; urtero egiteko asmoa dute kantu afaria Jardunekoek.

## Afalostean, kantuan

EUSKAL KANTA EZAGUNEZ OSATUTAKO LIBURUXKA EGIN DU JARDUNEK

USOA AGIRRE

**B**ergarako Jardun elkarteak 40 euskal abesti biltzen dituen kantu liburuxka osatu eta salgai jarri du. Liburuxka horrekin lortu nahi dute lagunarteko eta afalosteko kantaldiak berreskuratzea. Benito Lertxundi, Anje Duhalde eta beste hainbat kantu ezagunak bildu dituzte.

Euskal Herrian mahainguruan kantatzeko ohitura handia dago, izan bazkalostean, afalostean, lagun artean edo familiarekin. Nekane Gabilondo Jarduneko kideak azaldu digunez, "elkartek ikusi zuen mahai baten inguruan abesteko geroz eta ohitura gutxiago zegoela, batez ere gazteen artean". Hori dela eta, gazteen artean kantua bultzatzeko asmoz, liburuxka osatu eta kantu afaria egin zuten.

Ekimena Jarduneko Gazte Taldearen inguruan sortu zen. Urtero ikastaro ezberdinak antolatzen ditu talde horrek eta beste urte batzutan moduan, aurten ere gitarra ikastaroa antolatu dute. Ikastaro horretan euskal kantak erakustea nahi izan zuten eta hortik sortu zen liburuxkaren ideia. 20 gazte parte hartu zuten ikastaroan eta apirilaren hasieran, Erramu Zapatu bezperan, ikastaroari amaiera emateko kantu afaria antolatu zuten. Gitarra-rekin jotzen ikasitako kantak eskaini zituzten eta bertaratutakoek abesteko aukera izan zuten,

liburuxkaren laguntzarekin. Berrogeita bi lagun elkartu ziren kantu afarian eta giro ederra sortu zen Txarrantxa jatetxean elkartu ziren gazteen artean. Orain, Jardun euskara elkartearen asmoa da urtero antolatzea kantu afaria, gazteen artean ere kanturako ohitura zabaldu dadin.

## BI EUROTAN SALGAI

Erramu Zapatu bezperan egin zuten kantu afarirako 200 bat liburuxka osatu zituzten; baina, 42 pertsona hurbildu zirenez afarira, liburuxka batzuk soberan gelditu zitzaizkien. Hala, beste kanta bildumak bi euroren truke salgai jartzea erabaki zuten. Jarduneko Nekane Gabilondok adierazi digunez, "helburua da Bergarako koadrilen artean kantuan egiteko gogoia piztea". Liburuxkak Pol-Pol eta Kortazar taber-

netan eta Jardunen bulegoan izan ziren salgai, eta berehala agortu ziren afarian soberan gelditutako liburuxka guztiak. Euskal kantez osatutako liburuxkak izan zuen arrakasta ikusita, beste berrehun ale egitea pentsatu dute. Horiek ere lehengo lekuetan jarri dituzte salgai; Pol-Polen, Kortazarren eta Jardunen bulegoan.

Leku horietan ez ezik, Mendekoste jaietan ere kalean salgai jarriko dituzte liburuxkak; Jarduneko jaietako zapiak saltzeko jartzen duen postuan izango da liburuxkak eskuratzeko aukera, bi euroren truke, hain zuzen ere. Ea, ba, Bergarako Mendekoste jaietako afari eta bazkarietan euskal kantuak abestera animatzen diren gazteak eta hain gazte ez direnak. Jardunen liburuxkak, behintzat, lagunduko die zeregin horretan.

## Euskal kanta ugari

**E**uskal Herrian ezagunak diren 40 kanta biltzen ditu liburuxkak. Betidanik abestu izan diren kantak daude, baina, aldi berean, berriagoak direnak ere biltzen ditu liburuxkak. Herrikoien artean ditugu *Txantxibiri* edota *Gure kuadrilan*, baina herrikoi bihurtu diren beste hainbat musikariren abestiak ere aurkitu genitzake; Benito Lertxundirenak, Anje Duhalderenak, Pantxo eta Pellorenak, Erramun Martikorenenak eta Xabier Leterenak, besteak beste.

Berriagoen artean ditugu, Itoitzen *Lau Teilatu* eta Kortaturen *Sarri sarri*, besteak beste. Aurten, Telesforo Monzon bergararra jaio zela 100 urte betetzen direla-eta, berak sortutako *Bai euskarari* abestia ere badakar liburuxkak.


**AZOKA/ ERDI AROKO I. AZOKA ARRASATEN**

# Erdi Aroko festa, nagusi Arrasaten

USOA AGIRRE

**A**rrasatek Erdi Aroko itxura hartuko du aste bukaeran, bihar eta etzi Erdi Aroko azoka egingo baita. Garai hartako ikuskizun eta produktuak izango dira nagusi herriaren erdialdean.

Artisauen salmenta postuak, kale animazioa eta beste hainbat ikuskizun izango dira aste bukaeran Arrasaten. Zapatuan, goizeko 11:30ean zabalduko da azoka eta goizean zehar antzerkia, kalejira eta beste hainbat ikuskizun izango dira Arrasateko erdialdean. Arratsaldeko 18:00etan zabalduko dute berriz azoka eta arratsaldean ere ez da ikuskizunik faltako; musika, antzerkia eta dantzak izango dira kaleetan zehar.



Artisauen salmenta postuak egongo dira herri guztian.

Gauerako, berriz, ikuskizun ibiltaria antolatu dute, su artifizialekin eta musikarekin lagunduta. 22:00etan hasiko da ikuskizuna.

Domekan festak jarraituko du; azoka zabalduko dute goizeko 11:30ean eta musika, antzerkia eta beste hainbat ikuskizun ezgozatzeko aukera egongo da egun guztian zehar.

### URTEROKO JAIA

Udaleko kultura sailak antolatu du aurten, lehenengo aldiz, Erdi Aroko azoka, eta urtero antolatzeke asmoa dute. 23 mila euro gastatuko ditu Udalak azoka antolatzeko eta espero dute jendearentzat erakargarri izatea eta jende ugari gerturatzea inguruko herrietatik.

**ANTZERKIA/ NAGUSIENTZAKO NAZIOARTEKO VII. TXOTXONGILO MOSTRA BERGARAN**

# Fantasiatzko aste bukaera, txotxongiloen eskutik

U.A.

**A**tzo eman zitzaien hasiera Nagusientzako Nazioarteko VII. Txotxongilo Mostrari, baina domekara bitartean hainbat ikuskizun izango dira Bergarako kale eta aretoetan.

Taun Taunek antolatu du aurten ere mostra, Udalaren laguntzarekin. Guztira hamar txotxongilo talde izango ditugu egunotan Bergaran. Atzo eman zitzaien hasiera txotxongilo mostrari; Argentinako El Chonchon taldearen *Trespinas* lana ikusteko aukera egon zen gaztetxean. Gaurtik aurrera, ordea, beste bederatzik ikuskizun ezberdinez gozatzeko aukera izango da Bergaran.

Ikuskizunetaz gain, erakusketak ere egongo da Pol-Pol tabernan; Jesus M. Atienzaren *Hilos, sueños y sombras* argazki erakusketa, hain zuzen ere.

### BOST LEKU ETA HAMAIKA IKUSKIZUN

Novedades aretoan, gaztetxean, Bergarako kaleetan, Angiozarraren eta Osintxun izango dira txotxongilo ikuskizunak. Argentina, Katalunia, Andaluzia, Txina, Alemania eta Italiako ikuskizunetaz gozatzeko aukera izango da Bergarako bost puntu horietan.

Hiru ikuskizun izango ditugu gaur: Novedadesen *Boom* lanaz gozatzeko aukera izango da; automobila, motorra, elefantea eta beste hainbat protagonista bitxi biltzen ditu lan horrek; kalean zehar, Mediterraneo itsasoa-ri omenaldia egingo diote *Medusa* lanarekin; gaztetxean, azkenik, Jainkoaren anaia bikiaren abenturak izango dira ikusgai.



Jangzhou-ko txotxongiloak ikusteko aukera bihar, zapatua, Bergarako Novedadesen.

## Egitaraua egunez egun

### EGUBAKOITZA 21

**20:00: Boom**  
Chapertons Comic Teatre (Katalunia).  
Novedades aretoa.

**21:30: Medusa**  
Camaleo (Katalunia).  
Kaleko ikuskizuna.

**23:00: Hermano mellizo de Dios**  
Desguace (Andaluzia).  
Gaztetxea.

### ZAPATUA 22

**12:30: El anillo de los ancianos**  
Teatro Wynfyd (Alemania).  
San Martin plaza.

**17:00: El anillo de los ancianos**  
Angiozar.

**18:30: Circo discolo**  
En la lona (Argentina/Euskal Herria).  
San Martin plazan.

**20:00: Jangzhou-ko**  
Txotxongiloen Teatroa (Txina).  
Novedades aretoa.

**23:00: A todo trapo**  
Pizzicato (Argentina).  
Gaztetxea.

### DOMEKA 23

**12:30: El anillo de los ancianos**  
Teatro Wynfyd (Alemania).  
Osintxu.

**18:30: El anillo de los ancianos**  
Espoloia.

**20:00: Heartbet**  
Claudio Cinelli (Italia).  
Novedades.

**23:00: Possessed**  
5 Sesiones Teatro (Argentina).  
Gaztetxea.

# Kutsidazu bidea, Ixabel

**Aretxabaletako kirol etxean**  
Maiatzaren 28an  
Gaueko 10,30etan

**SARRERAK SALGAI NON:**  
ARLUTZ TABERNA  
GUREA TABERNA  
KIROL ETXEA  
KULTUR ETXEA  
**Prezioa:**  
Aurrez, 6 € / Takilan, 8 €



**ARETXABALETAKO UDALA**

**Antolatzailea:**  
Aretxabaletako Udaleko Kultura Saila



# Maiatzak 21-28

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## ERAKUSKETAK

### ANTZUOLA

► **Vascongados tren eta trenbide zaharren** inguruko erakusketa dago zabalik asteburu honetan, Olanan etxean, 12:00-14:00 eta 18:30-20:00.

### ARRASATE

► **Ricardo Azkargortak** *Itxurak* izeneko margo erakusketa du zabalik Arregi galerian (Maalako Errabalean), ekainaren 18ra bitartean.  
► **Emakumeak lanbide ezberdinetan lehiaketako lanen** erakusketa izango da ikusgai maiatzaren 24tik ekainaren 4ra bitartean, Emakume Txokoa, astelehenetik egubakoitzera, 17:00etatik 20:00etara.

### BERGARA

► **Jesus Mari Atienzaren** argazki erakusketa dago Pol-Pol tabernan gaurtik etzira bitartean, VII. Nazioarteko Helduendako Txotxongilo Mostraren barne. Gaur, egubakoitza, 18:00etatik 20:30era dago zabalik; bihar eta etzi, baita 12:00etatik 14:00etara ere.

## DEIAK

### ARETXABALETA

► **Posta bidezko bozka** tramitatzen lagunduko dute Batzokian. Honako egunetan izango dira han: astelehena, 24; eguaztena, 26; eta eguna, 27, 10:00-12:00 eta 18:00-19:00.

### ARRASATE

► **Erdi Aroko azoka** izango da bihar eta etzi. Azoka, pregoia, Erdi Aroko parranda, tornea, kalejirak, zirkoa eta beste hainbat ekitaldi izango dira Herriko Plazan eta Seber Altuben.  
► **Kilometroak 2005-en** aurkezpena egingo du Arizmendi ikastolak eguaztenean, hilak 26, Ferixalekuan, 18:30ean. Leintz bailarako herritar guztiak daude deituta.  
► **Danborradako lehen entsegua** egingo dute eguaztenean, hilak 26, San Viator Handi gunean, 20:30ean.  
► **Antiglobalizazioa, pobrezia eta emakumea** delako hitzaldia egingo du Begoña Zabala adituak hilaren 26an, eguaztena, Emakume Txokoa, 19:00etan.

### BERGARA

► **Abdon Juaristi margo lehiaketa** sari banaketa ekitaldia egingo dute gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:30ean. Zezen jaialdietako kartela ere aurkeztuko dute.  
► **Inaxitoren ametsak** bertso emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Angiozarren, 18:00etan.  
► **Panti preso ohiari omenaldia** egingo diote bihar, zapatua. Ekitaldia izango da Herriko Plazan, 19:30ean, eta afaria 21:00etan.  
► **Munduari itzulua milaka egunetan** diaporama emanaldia Eneko Etxebarrietarekin, martitzenean, hilak 25, kultura etxean, 19:30ean.  
► **Odol-ateratzeak** egingo dituzte hilaren 26an, eguaztena, Seminarioan, 18:30ean.

### DEBAGOIENA

► **Bi kometa ikusteko** irteera egingo du Ilatargi taldeak gaur, egubakoitza. Oñatiko Urrintxo tabernan bilduko dira, Arantzazu bidean, 21:30ean.  
► **Degabel abeltzainen elkarteak** batzar orokorra egingo du etzi, domeka, Aretxabaletako kultura etxean, 11:30ean eta 12:00etan.

► **Atzoko eta gaurko gudariei omenaldia** egingo die Herritarren Zerrenda elkarteak. Etzi izango da, domeka, Elgetako Asentzioko bidegurutzean, 12:00etan. Hango monolitoan plaka ipiniko dute.  
► **Haurreskoletarako izenematea** zabalik dago Arrasaten, Oñatin eta Elgetan, hilaren 28ra bitartean. Horretarako, udaletxera jo behar duzue.  
► **Baserriko plastikoak bilduko ditu** Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak hilaren 25ean, martitzena. Ohiko lekuetatik pasatuko dira. Hainbat lekutatik ere pasatzen dira alde zuzenetik aurrerik abisatuz gero. Argibideak, 943 76 25 47 telefono zenbakian.

### ESKORIATZA

► **Ur jolasparkea** egongo da etzi, domeka, kiroldegian, 16:00etatik 20:00etara bitartean. Kiroldegiko bazkideek 1,5 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, 3.

### OÑATI

► **Urepele-Lindus-Auritz** mendi irteera antolatuko du Aloña Mendik maiatzaren 30erako, domeka. Argibideak, Aloña Mendi tabernan.

## MUSIKA

### BERGARA

► **Ricardo Villalobosek** emanaldia egingo du bihar, zapatua, Go-Jam aretoan, 01:00etan.  
► **Fito y Fitipaldis** taldeak emanaldia egingo du eguenean, hilak 27, eta egubakoitzean, 28, Jamen, 21:00etan eta 22:00etan, hurrenez hurren.

### OÑATI

► **Utopia soka orkestrak** emanaldia egingo du etzi, domeka, Santa Ana aretoan, 19:30ean, XXVI. Musikegunak jardunaldien barne. Euskal Herriko eta kanpoko musikariek osatzen dute.

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► **Margarita la Aldeana** delako pertsonaiaren umorezko emanaldia izango da etzi, domeka, Gambirinus tabernan, 00:30ean.

Udaberriko  
Kanpaina Handia

**CARIBE** ..... 395 €  
Prezioa pertsonako  
65.722 Pta  
REP. DOMINICANA. PUNTA CANA.  
Irteera 05/30. 9 egun-7 gau. Barcelo Villas Bavaro Punta Cana Hotela\*\*\*\*. Dena barne. Hegazkina Madriletik.

**TENERIFE** ..... 190 €  
Prezioa pertsonako  
31.613 Pta  
Maiatzaren 30ra arte. 8 egun-7 gau. Hotela\*\*. Hegazkina Bilbotik.

**COSTA del SOL** ..... 179 €  
Prezioa pertsonako  
29.783 Pta  
FUENGIROLA. 06/1ekin 06/18ra. 8 egun-7 gau. Mas Playa Hotela\*\*\*. Mantenu erdia. Lehen haurra dohainik.

Maite dut!

**Viajes Eroski Bidaia**  
Grupo Eroski  
Kalitatea Bermatuta

eroski BIDAIAK

eskaintza gehiago [www.viajeseroski.es](http://www.viajeseroski.es)



### ► KONTZERTUAK

## FANTÔMAS TALDEAK JAM ARETOAN JOKO DU BIHAR, ZAPATUA

Fantômas taldeak *Delirium Cordia* hirugarren diskoa aurkeztuko du zuzenean. Bertan, disko osoa osatzen duen pieza baka-rean, taldeak bere alde sosegatuena agertzen du, eta adituek diote, zuzenean, *azaldu ezinezko* esperientzia dela disko horretako doinuak entzutea. Ez-rock (euren definizioari segituz) egiten duten lau musikariek osatzen dute Fantômas: Mike Patton abeslaria Tomahawk eta Peeping Tom taldeetan ere badabil, eta Faith no More eta Mr Bungle taldeekin ere jardun izan du. Buzz Osbourne (gitarra), Trevor Dunn (baxua) eta Dave Lombardo (perkusioa) dira beste taldekideak. Eyvind Kang taldeak ere joko du bihar Jamen, kontzertu berean.

**Non:** Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** bihar, zapatua. **Ordua:** 22:00. **Txartelak:** Aurretik, 18; txarteldegian, 21.







**AIPAGARRI**

**Pruden Gartzia**

OÑATI

**E**uskaltzaindiak *La España metafísica: lectura crítica del pensamiento de Ramón Menéndez Pidal (1891-1936)* izeneko lana kaleratu du, Pruden Gartzia oñatiarrarena. Hamar urteko ikerketa lanaren ondoren, Gartzia doktoretza tesiaren ideia garrantzitsuenak biltzen ditu lan horrek.



**Felix Ayala**

ARRASATE

**F**elix Ayala margolari arrasatearrak Bergarako Abdon Juaristi margo lehiaketa irabazi du. Bigarren aldia da lehiaketa hori irabazten duena. Gaur emango diote saria Bergaran. Aurtengo Mendekoste jaietako zezenketak iragartzeko kartela, beraz, Ayalaren margolanarekin egingo dute.



**Iñazio Irizar**

OÑATI

**I**ñazio Irizar oñatiarrak liburu berria kaleratu du, *Cómo crear una empresa* izenburupean. Gestion 2000.com argitaletxearekin atera du liburua eta enpresa bat sortzeko argibideak ematen ditu, besteak beste. Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko irakaslea da Irizar.



**Danel Otero Aranburu**  
Eskoriatza • Maiatzaren 16a • 3,920 Kg. • **Gurasoak:** Goizane Aranburu (Arrasate) eta Joseba Otero (Arrasate). Argazkian, umea aitarekin batera.



**Maidier Atencia Ezpeleta**  
Arrasate • Maiatzaren 17a • 2,950 Kg. • **Gurasoak:** Aintzane Ezpeleta (Arrasate) eta Seve Atencia (Bilbo). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Gotzon Tena Salaberria**  
Arrasate • Maiatzaren 10a • 3,210 Kg. • **Gurasoak:** Iratxe Salaberria (Eibar) eta Juan Antonio Tena (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Iker Etxaniz Unanue**  
Bergara • Maiatzaren 14a • 4,040 Kg. • **Gurasoak:** Maite Unanue (Bergara) eta Jokin Etxaniz (Bergara). Argazkian, umea amarekin batera.



**Manex Linazisoro Llodio**  
Bergara • Maiatzaren 14a • 3,695 Kg. • **Gurasoak:** Estitxu Llodio (Arrasate) eta Erik Linazisoro (Bergara). Argazkian, umea aitaren besoetan.




**Garazi Fernandez Arenaza**  
Aretxabaleta • Maiatzaren 14a • 3,100 Kg. • **Gurasoak:** Jone Arenaza (Mendiola) eta Adolfo Fernandez (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.

**HILDAKOAK**

- Manuel Arregi Maiztegi.** Oñatin, maiatzaren 12an. 68 urte.
- Rosa Cobo Zabala.** Arrasaten, maiatzaren 13an. 100 urte.
- Dolores Mezalde Navay.** Arrasaten, maiatzaren 13an. 83 urte.
- Mariano Igartua Telleria.** Oñatin, maiatzaren 16an. 91 urte.
- Basilía Garai Santa Cruz.** Bergaran, maiatzaren 17an. 83 urte.
- Maria Aranburuzabala Dorronsoro.** Eskoriatzan, 18an. 97 urte.
- Elisa Gantxegi Telleria.** Bergaran, maiatzaren 19an. 91 urte.



**Maialen Hernandez Alkorta**  
Arrasate • Maiatzaren 18a • 3,350 Kg. • **Gurasoak:** Nekane Alkorta (Arrasate) eta Jesus Hernandez (Arrasate). Argazkian, jaioberria amaren besoetan.



**Ane Miren Azkarate Montes**  
Arrasate • Maiatzaren 18a • 3,460 Kg. • **Gurasoak:** Maite Montes (Donostia) eta Mikel Azkarate (Arrasate). Argazkian, umea gurasoekin batera.



**Maria Uranga eta Jabier Urkiola** arrasatearrek bihar beteko dituzte urrezko ezteiak. 1954ko maiatzaren 22an ezkondu ziren, eta bihar ospatuko dute urteurrena familiakoekin. Zorionak eta urte askotarako familiakoen partetik!

**ESKER ONA**

**Basilía Garai Santa Cruz**


Bergaran hil zen  
2004ko maiatzaren 17an,  
83 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Tomas Lasa eta Justina Balzategi** bergararrek bihar beteko dituzte 50 urte ezkondua. 1954ko maiatzaren 22an ezkondu ziren Bergaran. Familiakoekin batera ospatuko dituzte urrezko ezteiak. Zorionak, bikote, familia osoaren partetik!



**Alberto Tijero eta Susana Barquero** arrasatearrek bihar ezkonduko dira Dorletan. Albertoren koadrilakoek Susanari esan nahi diote eurretako onenarekin ezkonduko dela. Zorionak, familiaren eta PAC taldearen partetik! Aupa, hi, *jabali!*

**ESKER ONA**

**Jose Mari Madinabeitia Jauregi**

Durangon hil zen  
2004ko maiatzaren 18an,  
71 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Pilar Figueredo eta Luis Maria Mercader** 1979ko apirilaren 4an ezkondu ziren. Joan den apirilean ospatu zituzten zilarrezko ezteiak, eta Argentinara joan ziren bidaian. Zorionak, bikote, familia osoaren partetik!



**Mertxe Azkargorta eta Jose Mari Mercader** 1954ko urtarrilaren 18an ezkondu ziren. Joan den urtarrilean 50 urte beteko lituzkete ezkondua senarra bizirik balego. Edozelan ere, emaztea bizirik da; zorionak, familia osoaren partetik!

## HITZGEZIDUNAK

Luma

	Kakatzaral	... egin, elkar jo	Joria, oparora
	Ikur matematiko	Oso, erabat	
	*Izena		
	Hegazti harrapari		
Sortzaile	Ertz, punta		
Oroitu	Beraz, hortaz		
		Estrontzioa	
		Maiz	
*Deitura			
Kostaldeko zingira			
		Lehen letra	
		Perkusio-tresna	
Listu	Ardi hitz-elkarketan		Pairamen
Gizonezko izena	Itsaso hitz-elkarketan		
		Hilobietan	
		Hitz ematea	
Duela denbora asko			
Naizen hau			
	7. musika nota		Pare bat
	U birritan		Dauka
Luandako herritar			
Ezer ez			
		Otsoaren oihu	

## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

### GAITZIZENAK

Gerra aurrean batez be gaitzizenak ipintzeko oitxura aundixa zeguan Eibarren. Etorri ziran bi kanpoko izkribiente eta beriala ipiñi zetsen gaitzizena. Bata-ri El tubo de la risa eta bestia-ri Madame X. Bazan beste bat —korriuetako zuzendaria—, au be gaitzizenaren jabe zana.

Egun baten alkartu dira irurak Rialtuan Gantxusekin. Onek galdetu zetsen ia pozik zegoen Eibarren eta aiek erantzun:

- Bai, oso pozik gagoz. Jende jatorra da emengua.

Baiña badauke akats bat: gaitzizena beriala ipintzen doskue.

Orduan emakume antzeko abotsa zeukan korriuetako nagusixak diño:

- Que raro, yo llevo en Eibar 10 años y a mi todavía no me han puesto mote.

Orduan Gantxusek diñotsa:

- ¡Claro que le han puesto!

- ¿A mi?


- Si, a usted, le llaman Kuxa.

- Que es eso?

- Conejo de la India.

## EZETZASMATU!

Estepan Plazaola





### Zein da Debagoieneko biztanleen egoera zibila?

Debagoieneko biztanleak 62.010 ziren 2001eko errollaren arabera, 20 urte lehenago baino 5.126 gutxiago. 1981ean biztanleen %51 ezkongabea zen, %44 ezkondua eta %5 alargun, dibortziatu edo banandu legala. Eta 20 urte beranduago, 2001ean, zein izango zen egoera hori? Asmatuko zenuke? Hona hemen aukerak:


- Ezkongabeak %45, ezkonduak %47 eta alargun, dibortziatu eta banandu legalak %8.
- Ezkongabeak %49, ezkonduak %40 eta alargun, dibortziatu eta banandu legalak %11.
- Ezkongabeak %52, ezkonduak %39 eta alargun, dibortziatu eta banandu legalak %9.

**Erantzun zuzena:** Ezkongabeak %45, ezkonduak %47 eta alargun, dibortziatu eta banandu legalak %8. Ezkongabeen batez bestekoa gutxi-ta-naren arrazoiak: seguruenik, gazteen proportzioa murriztu izana izango da.

## BILABILA7



## SOLUZIOAK



U	L	U	•	S	U	E	D
A	R	D	N	A	U	L	•
I	B	•	I	S	•	I	N
A	N	I	Z	T	N	A	•
P	I	R	•	I	A	Z	I
•	T	A	R	•	U	T	•
A	•	A	R	U	D	A	P
I	•	A	R	A	S	R	•
R	•	S	•	T	O	R	O
R	U	T	U	M	•	K	•
A	E	P	•	K	E	P	•
S	U	N	I	M	•	•	•
•	T	•	•	•	•	•	•

## ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

### ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Familiakoren batek dirua eskatuko dizu, eta, gertu-gertukoa denez, utzi egin beharko diozu; bada, horrek astindua emango dio zure ekonomia-ri. Bestalde, onura handiak ekarriko dizkizun proiektu bat hasiko duzu.

### TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Bikotekidearekin duzun harreman sendoa pikutara joango da, esperientzia berriak bizi gura izango dituzu-eta. Bestalde, oso aste txarra lankidetzan jarduteko edo jendaurrean lan egiteko; hortaz, ahal baduzu ez egin holakorik.

### GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Nahastuta ibiliko zara zure bizitzako alderdi guztietan, eta edozein erabaki hartzeko ere arazo ugari izango dituzu. Aholkua eskatu; izan ere, ingurukoek eta, batez ere, familiakoek lagundu egingo dizute.

### CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Oso aste aproposa, nagusiek zure ideia guztiak kontuan hartuko dituztelako eta aurrera eramango dituzun proiektu guztiak ondo irtenko direlako.

### LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Hainbat desadostasunengatik zure proiektuek ez dute aurrera egingo; hortaz, egin dezakezun gauza bakarra da zertan huts egin duzun pentsatzea. Horren ondorioz, umore txarreko egongo zara eta ingurukoek igarri egingo dute.

### VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Inpotentzia sentsazioa; izan ere, igartzen duzu dena oso azkar doala eta ez duzula indarrik ezertarako. Horren ondorioz, urdui eta haserreko egongo zara eta hainbat osasun arazo izango dituzu.

### LIBRA

irailak 23-urriak 22



Hainbat arazo izango dituzu agiriakin eta buruhauste bat baino gehiago izango duzu. Baina lasai, azkenean arazo guztiak konpondu egingo dira-eta.

### SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Atzerria bidaia egiteko aukera izango duzu; bidaia horretan asko ikasiko duzu. Bestalde, anai-arreba-ren batek zure laguntza beharko du estuasun bate-rik irtekeko; hortaz, lagun iezaiozu, haren jarrera epaitu barik.

### SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Proiektuak zakarrontzira joan daitezke zure irizpideak ezarri gura dituzelako. Hori gertatzerik gura ez baduzu, malgua izan eta entzun ingurukoek esateko dutena.

### CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Egin duzun esfortzu itzelak fruituak emango ditu, eta orain emaitzez gozatu ahal izango duzu. Gainera, aisialdirako denbora luzeagoa izango duzu, bai etxean egoteko seme-alabekin, bai oporralditxo batzuk hartzeko.

### AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Bikotekidea izan edo ez, zurekin gura duena egingo duen neska edo mutil bat ezagutuko duzu; izan ere, hura guztiz idealizatuta daukazu.

### PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Frustrazio sentsazioa; izan ere, zure ekimen guztiak atzera botako dituzte. Horren ondorioz, aldaketa sakonak egingo dituzu zure bizitzako hainbat alderditan.



 **902 36 38 51**  
Astelohenetik egubakoitzera  
Ordutegia: 09:00etatik 21:00etara

# Harpidedunen txokoa

002 zozketa

Datorren astelohenean, hilaren 24an, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.  
**Asteloheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi! Zeu izan zaitezke!**

**Aste honetan sari hauek zozketatuko ditugu:**



uztailean...  
**+ adi!**

Asteloheneko Goienkaria-ren harpidedun guztien artean bidaia zoragarri bat zozketatuko dugu.

HP markako **ESKANER** zoragarri bat.

'**KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL**' antzezlana izango da Aretxabaletako kirol etxean, maiatzaren 28an, 22:30ean. Antzezlana horretarako **bi lagunentzako bina sarrera** zozketatuko ditugu.

Donostiako **AQUARIUM**era joateko **12 gonbidapen** (sartu bakoitzarentzako bi).

**YELMO CINEPLEX** (Gorbeia merkataritza-gunean) zinemetara joateko **8 gonbidapen** (sartu bakoitzarentzako bi).

'**LOS MONÓLOGOS DE LA VAGINA**' antzezlana izango da Elorrioko Arriola kultura aretoan, maiatzaren 28an, 22:30ean. Antzezlana horretarako **bi lagunentzako bina sarrera** zozketatuko ditugu.

'**EH SELEKZIOA**' bideo jokoa eta selekzioaren bufanda bat.

'**GIPUZKOA ZURE ESKU**' Elhuyarren jokoa. Gipuzkoako herriak ezagutzeko modurik dibertigarriena.



## BALDINTZAK

Asteloheneko Goienkaria-ren harpidedun direnek **bakarrik** parte hartu ahal izango dute zozketan.

Baldintza bakarra da **harpidedun** izatea.

**Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.**

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**  
Urte amaierara arteko harpidetza 20 €

ASTELOHENEKO  
**Goienkaria**  
astelohenean, aste bukaera osoa

001 zozketaren saridunak

Hauk izan dira aurreko egubakoitzean argitaratu genituen sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK !**

### ECRON MUSIKA KATEA

• Jose Francisco Gallastegi Lejarreta (Eskoriatza)

### AQUARIUMerako sarrerak

• Karlos Zengotitabengoa (Bergara)  
• Arantza Alzola Galdos (Aretxabaleta)  
• Rosa Madinabeitia Erostarbe (Bergara)  
• Joxe Ramon Langaran Vitoria (Arrasate)  
• Maria Jesus Aranzabal Ezenarro (Arrasate)  
• Jose Luis Egizabal (Elgeta)

### YELMO CINEPLEXerako sarrerak

• Xabier Zelaia Arza (Oñati)  
• Monika Garitano Muruamendiaraz (Bergara)  
• Mirari Guridi Ibabe (Oñati)

### 'DE RECUERDOS Y TANGOS'-erako sarrerak

• Bittor Kortabarria Ortueta (Aramaio)  
• Juan Jose Urizarren Lejarreta (Arrasate)

### ELHUYAR JOKOA

• Bernardo Aranzabal Oyanguren (Arrasate)

### 'EH SELEZIOA' BIDEO JOKOA

• Ainhoa Garai Olabe (Aretxabaleta)




### YELMO CINEPLEXerako bi sarrera

• Edurne Otxoa Aizpurua (Oñati)




**Harmailatik**

ASTELEHENA 24/ 20:30 eta 22:30




**Goienan, herriz herri**

MARTITZENA 25/ 20:30 eta 22:30



**Sarrera doan**

EGUENA 27/ 20:30 eta 22:30



**Iluntzean**

EGUENA 27/ 21:15 eta 23:15

**Aizkorriko Mendi Maratoian debagoiendar ugari**

Domekan jokatuko dute Aizkorriko Mendi Maratoia. Lasterketan, Debagoieneko 34 kirolarik hartuko dute parte. Julen Iriondo kazetariak horiek eginda koaren berri eskainiko du, besteak beste, asteleheneko *Harmailatik* saioan.

**Debagoiena hizpide hartuta agurtuko da 'Herriz herri'**

Bailara oso-osorik ardatz hartuta egingo dute martitzeneko *Herriz herri*. Alberto Gorritibereak Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramaile eta Lurralde Antolamendu eta Sustapenerako diputatu Koldo Azkoitia elkarrizketatuko du.

**'Kutsidazu bidea, Ixabel' eta Fito y los Fitipaldis**

Antzerkiak eta musika kontzertuak izango ditugu asteburuko agendaren protagonistak. Egueneko *Sarrera Doan*-en, horietako biri tarte berezia eskainiko diote: *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlanari eta Fito y los Fitipaldis taldeari.

**Jose Maria Setien 'Iluntzean' saioko gonbidatua**

Jose Maria Setien Donostiako gotzain ohia izango da eguenean, hilak 27, *Iluntzean* saioko gonbidatua. Aintzane Gardokik gaur egun daraman bizi-moduaren gaineko galderak egingo dizkio, besteak beste.

**TELEBERRIAK**

**'Kalera' lehiaketa berria estreinatu dute ETB1en**

ETB1ek saio berria estreinatu zuen joan den astelehenean, *Kalera* izeneko. Lehiaketa berri horretan, platoko lehiakideek kalekoen aurka lehiatu beharko dute. Astelehenero emango dute saio berria, *Goenkale*-ren ondoren. Aurkezleak Iban Garate *Betizu*-n aurkezle lanetan ibilitakoa eta Afrika Binbang musikaria dira.

**Juan Menorrek TVEko zuzendaritzan jarraituko du**

PPren gobernuak izendatu zuen 2002an TVEko zuzendari Juan Menor madrildarra. Eta PSOEren gobernu berriarekin ere postu horretan jarraituko du Menorrek. 1980a ezkerro dihardu lanean RTVEN.

**ASTEKO PROGRAMAZIOA / Maiatzaren 21etik 27ra**



EGUBAKOITZA 21	ZAPATUA 22	DOMEKA 23	ASTELEHENA 24	MARTITZENA 25	EGUAZTENA 26	EGUENA 27
13:30 Gatzeta eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatzeta eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Iragana gogoratuz Garraiobideak, bideak eta estraperloa gai hartuta eginiko erreportajea. 15:30 Lanabesak Oporrak ate joka ditugu eta hainbat proposamen egingo dizkigu Maider Arregik. 16:00 Iluntzean 16:30 Sarrera doan 17:00 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Iragana gogoratuz Garraiobideak, bideak eta estraperloa gai hartuta eginiko erreportajea. 15:30 Lanabesak Oporrak ate joka ditugu eta hainbat proposamen egingo dizkigu Maider Arregik. 16:00 Iluntzean 16:30 Sarrera doan 17:00 Emisio amaiera	13:30 Gatzeta eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatzeta eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatzeta eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatzeta eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatzeta eta berakatza 14:00 Goienan, herriz herri: Debagoiena 14:30 Berriak 15:00 Gatzeta eta berakatza 15:30 Berriak 16:00 Gatzeta eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatzeta eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Gatzeta eta berakatza 16:00 Gaurkoak 16:30 Gatzeta eta berakatza 17:00 Emisio amaiera
19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Goienan, herriz herri: Debagoiena 21:00 Gaurkoak 21:15 Herriz herri 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Goienan, herriz herri 23:00 Gaurkoak 23:15 Herriz herri 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Gaurkoak 23:00 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Iluntzean: Jose Maria Setien 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Iluntzean: J.M. Setien 23:45 Emisio amaiera
22:30 Astebete			21:15 Harmailatik tertulia	20:30 Goienan, herriz herri	20:30 Txintxaun	21:15 Iluntzean

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95



**LASAGABASTER**

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



## Itsasoaren marmarrarekin esnatu nahi dut.

Mila modu daude **biharko egunari** aurre egiteko. Baina guztiek dute zerbait bateratsu: ongizate-nahia. Horretarako dituzu **Kutxa Aurreikuspen-Plan Bermatu** berriak. Gaurtik bertatik etorkizuneko pentsioa prestatzen hasteko behar dituzun errentagarritasuna eta segurtasuna lortzearren. Hala, hauxe besterik ez duzu pentsatu beharko hemendik aurrera: zeure erretiroaz nola gozatu.

**KUTXA**  
**AURREIKUSPEN-PLAN**  
**BERMATUAK**

**Bihar zer egin behar duzu?**

*Kutxa Aurreikuspen-Plan Bermatuak Kutxa Bi BGAEra daude atxikita.*

## Atzeskua

USOA AGIRRE

### Mikel Etxebeste/ 'Bizizaleak' saioan parte hartu du

**E**TB1eko *Bizizaleak* saioan parte hartu duzu; zelan ba? Gauza berri bat probatzeko asmoarekin parte hartu nuen saioan.

Bestalde, gaur egungo artzain bat nolakoa den erakutsi nahi nion jendeari; gauzak asko aldatu dira artzaintzan eta gaur egungo artzainak ez ditu egunak mendian ematen.

**Zelan moldatu zara aktore lanak egiten?**

Aktore batekin trukaketa egin nuen eta haren lana egin behar izan nuen hiru egunez, Madrilen. *Hospital*

*Central* telesaileko aktoreak oso onak dira, eta ondo portatu dira nirekin. Pare bat aldiz errepikatu behar izan genuen eszena.

**Nolakoa da *Hospital Central*?**

Telebistan ikusten denarekin konparatuz, oso desberdina da hangoa. Nik uste nuen benetako ospitale batean grabatzen zutela telesaia, baina guztia dekoratua da; lau egur daude ondo jarrita eta guztia horien inguruan egiten da. Jende askok egiten du han lan eta kamerak daude alde guztietan.

**Telebistako izar berria izango zara.**

Ez, ez. Oso ondo pasatu dut aktore lanak egiten, baina ardi artean jarraitzea nahiago dut.

**Baina, ofizioz, artzaina zara.**

Bai. Gasteizen ikasi nuen Abere Ustiaketa eta gero Arantzazuko Artzain Eskolan jardun nuen. Orain Olaberriako arditegi batean egiten dut lan.

**Ez da oso ohikoa hain artzain gazteak ikustea.**

Ez. Nafarroako Lezaunen ardiak dituzte gure osabak eta aitonak, eta hortik dator kit zaletasuna. Arrasaten jardun nuen lan-tegi batean lanean, baina ez zitzaidan batere gustatu. Askok nahiago dut artzaintza; bizitzeko modu bat ere bada.

**Zein da zure hurrengo helburua?**

Nire artaldea eduki nahi dut, orain osabarenarekin ibiltzen bainaiz. Nire artal-

dea eta nire ukuilua eduki nahiko nituzke urte batzuk barru.

**Artzainak gazta egiten ere jakin behar du.**

Bai, hori egiten badakit. Olaberri horretan jarduten dut, gehienbat. Gaztarik egin ezean, ezin da artzaintzatik bizi.

**Zure gaztek jasoko dute sariren bat inoiz?**

Niretako saririk onena urte bukaeran gazta guztiak salduta edukitzea izango litzateke.

**Bero egiten hasi du.**

**Eraman dituzu ardiak ile apaindegira?**

Bai, ardi guztiek ilea moztuta dute dagoeneko. Gainera, nire ordez jardun behar izan zuen *Bizizaleak* saioko kideak.

**Ardiak mendira eramateko garaia ere bada.**

Bai, laster eramango ditugu ardiak mendira. Baina gu ez gara mendian egoten, beste lan batzuk egiten ditugu behean.

## PIPERRAUTSA

### Keinuak

**K**einu baten dabilta politikoak boladan. Urduritasun seinale omen dira aurpegian gura barik sortzen diren keinuak. Politikan egiten direnak ere zerbaiten seinale dira. Urduri eta egon ezinik ikusten dira politikoak. Giroa aldatu da eta aukerak ikusten dituzte, nonbait. Aukerak eta arriskuak.

Oraindik goiz da keinuen irakurketa osoa egiteko. Guztiak ari baitira guztiei keinuka. Hala ere, sendo ikusten ari naiz Jesus Egiguren. Keinuez gain, uste dut ari dela mamitzen unionismo berria, Espainiarekin bat eginda irauteko modu erosoak, betiere herritarren borondatea oinarri eta biolentziarik eza baldintza. Ez dakit zenbateraino nagusituko diren bere tesiak hemengo sozialisten artean, eta onartuko dituzten Madrilen. Baina jarraitu beharrekoa bihurtu zait PSEko presidentea.

Era berean, sendo ageri da Rafa Diez, ezker abertzalearen une onenetan ohi duen bezala. Sumatzen da hor ere badabilela mugimendua, egoera berrira egokitzeko. Eta LABeko idazkariak markatu ditu hainbat eginkizun, etxe barrutik hasita. Gurean diren independentistek sendo egin beharko dute lan estrategia komuna adosteko.

Ze, keinuak keinu, bi horiek dira etorkizuneko aukerak euskal gizartearentzat: unionismoa eta independentismoa. Eta gatazkaren soluzioa etorriko da adosten dutenean erreferendumaren mekanika, emaitzen onarpenean, eta ondorioen kudeaketa.

MIKEL IRIZAR



**“Telesaileko aktoreak oso onak dira, eta ondo portatu dira nirekin. Pare bat aldiz errepikatu behar izan genuen eszena”**

**“Gauzak asko aldatu dira; oraingo artzainak ez ditu egunak mendian ematen”**

**“Oso ondo pasatu dut aktore lanak egiten, baina ardi artean jarraitzea nahiago dut”**

► Arrasate / 25 urte / Artzaintzan jarduten du



**Eraman dotoretasuna zure etxera**



**gelatzu s.l.**

Zubillaga auzoa 1  
 OÑATI  
 Tel.: 943 71 63 22  
 Faxa: 943 78 15 51